

Euskal kasazio zibila espainiar kasazio-sisteman integratzeko azken saiakera: Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzko maiatzaren 19ko 4/2022 Legearen harira

Sara Arruti Benito, Ixusko Ordeñana Gezuraga*
Zuzenbidea+EAZ gradu bikoizduna eta Zuzenbide Prozesaleko doktoregaia
*UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea

Espainiar kasazio-sisteman kasazio arrunta eta kasazio autonomikoa bizikide dira. Biek helburuak, ondoreak eta araudia partekatzen dituzte, baina kasazio arrunta da haien arteko elkarbizitzaren gidari eta, azken batean, kasazio-sistema guztiaren ardatz. Testuinguru horretan, espainiar kasazio-sistemak eratzen duen puzzlearen azkeneko pieza dugu aztergai, Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzko maiatzaren 19ko 4/2022 Legea, hain zuzen ere. Espainiar kasazio-sisteman kasazio arruntak eta kasazio autonomikoak bizi duten egoera abiapuntu izanik, euskal kasazio-errekurtso zibila arautzen duen lege berri horren azterketa kritikoa egingo dugu, araubide berriaren indargune eta ahuleziak azaleratuz.

GAKO-HITZAK: Kasazio-errekurtsoa · Espainiar kasazio-sistema · Kasazio arrunta · Euskal kasazio zibila · Zuzenbide zibil autonomikoa · Kasazio-interesa.

The last attempt to integrate Basque cassation into the Spanish cassation system: regarding Law 4/2002, of May 19, on the Basque civil cassation appeal

In the Spanish cassation system, common cassation and regional cassation coexist. Both of them share objectives, effects and regulation, but, in reality, common cassation is the guide of their coexistence and the axis of the entire cassation-system. In this context, we focus on the last piece of the puzzle that constitutes the Spanish cassation system, the Law 4/2002, of 19 May, on the Basque Civil Cassation Appeal. Taking as a starting point the situation of the common cassation and the autonomous cassation, we will carry out a critical analysis of this new law, that regulates the Basque cassation appeal, highlighting the strengths and weaknesses of this new legal framework.

KEY WORDS: Cassation appeal · Spanish cassation-system · Common cassation · Basque civil cassation · Autonomous civil law · Cassational-interest.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5065>

Jasotze-data: 2023-03-31 *Onartze-data:* 2023-05-05

1. Euskal kasazio zibila arautzeko lege berria espainiar kasazio-sistemaren testuinguruan

1.1. Abiapuntua: kasazio-sistema espainiarrean kasazio arruntaren eta autonomikoaren bizikidetzak

Euskal kasazio zibila arautzen duen lege berriaren azterketa juridiko eta kritikoari heldu baino lehen, espainiar kasazio-sistemaren nondik norakoak aztertzea eta ulertzea beharrezkoa da. Ezeri ekin aurretik, kontuan hartu behar da euskal kasazio zibila espainiar kasazio-sistemaren testuingurutik eta, zehatzago, kasazio-errekurtsoaren eraientza juridikotik ezin dela banatu. Are gehiago, euskal kasazio zibilaren arauketa sistema konplexu horrek eratzen duen puzzleari¹ atxikitako «azken piezatzat» jo dezakegu. Dakigunez, espainiar ordenamendu juridiko zibilean espainiar kasazio-sistema osatzen duten kasazio arrunta eta autonomikoa aintzatetsi eta bereizten dira. Bi kasazio mota horiek araudia, helburuak eta ondoreak partekatzen dituzte, kasazio arrunta izanik, haien arteko elkarbizitzaren, eta, azken batean, espainiar kasazio-sistema guztiaren ardatz eta euskarri. Espainiako kasazio-sistemak frantziar kasazio-errekurtsoan duen jatorriak² eraginda, estatuko bi botereren (Botere Legegilea eta Botere Judiziala) arteko harremana islatzen du. Gainera, aintzat hartu behar da Espainiako Estatuaren konfigurazio politikoak eta lurralde-antolaketak kasazio-sistema baldintzatzen dutela: Espainiako Konstituzioak (aurrerantzean, EK) ezartzen duen «Espainiako nazioaren batasun zatiezina» eta «Espainia osatzen duten nazionalitate eta eskualdeen autonomia-eskubidea» (EKren 2. eta 137. artikulua) bermatuz eta uztartuz, Autonomien Estatu deritzona sortu zen. Nahiz eta lurralde-antolaketa horretan Botere Legegilea eta Betearazlea deszentralizatuta agertzen diren (EKren 148. eta 149. artikuluetan eta dagokion autonomia-estatutuetan xedatzen denaren arabera) Botere Judiziala, kontrara, nazio guztirako botere bakartzat eratzen da, jurisdikzio-batasunaren printzipioan oinarrituz (EKren 117.5 art.)³. Gauzak horrela, Justizia Administrazioaren gaineko eskumen eksklusiboa estatuarentzat gordetzen da (EKren 149.1.5 art.)⁴ eta ildo horri jarraituz, Auzitegi Gorenak (aurrerantzean, AG) «(...) jurisdikzioa Espainia osoan duela» eta ordena guztietako «(...) jurisdikzio-organo nagusia» dela adierazten da (123.1 art.)

1. Ordenamendu juridiko espainiarrean kasazio zibil arruntak eratzen duen «puzlea»-ren azterketa sakona egiten du Ordeñanak (2020a).

2. Frantziako Kasazio Auzitegiaren (*Cour de cassation*) jarduna eta frantziar kasazio-errekurtsoaren jatorria zein bilakaera modu argigarrian azaltzen ditu Hualdek (2017).

3. Printzipio horren esanahia modu argian azaltzen du, Pérez-Cruz-ek (2007). Gaztelaniaz dio: «No es tanto que la Administración de justicia permanezca como una competencia estatal, sino que se encuentra en un plano diferente al reparto competencial de materias legislativas y ejecutivas: por así decirlo, se sitúa por encima de esta división territorial».

4. Konstituzio Auzitegiak (aurrerantzean, KA) —(KAren 56/1990 epaia, martxoaren 29koa)— «Justizia Administrazioa zentzu hertsian» ulertu behar zela adierazi zuen, Botere Judizialaren jurisdikzio-funtzioari eta autogobernuari lotutako oinarrizko elementuak barne hartuz. Horrekin batera, jakina denez, KAak justiziaren elementu zabalagoak aipatu zituen, hala nola beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak, «Justizia Administrazioaren Administrazio» gisa identifikatu zituenak. Azken horiek, Justizia Administrazioaren funtsezko elementutzat jo ezin daitezkeenez, haien titulartasuna autonomia-erkidegoei esleitzea onartu zuen. Beraz, nabarmendu behar da estatua ez dela Justiziaren eskumenaren titular absolutua. Titulartasun absolutu horren gabezia azpimarratzen du Vallespín-ek (2012).

eta Justizia Auzitegi Nagusiak (aurrerantzean, JAN) autonomia-erkidegoen lurralde-eremuan «antolamendu judizialaren gailurra» izango direla xedatzen da, betiere, AGri dagokion jurisdikzioa errespetatzen delarik (EKren 152.1 art.).

Zentzu horretan, berebiziko garrantzia du gogora ekartzeak, estatuak, halaber, legeria zibilari buruzko eskumen eskusiboa gordetzen eta mantentzen duela, «alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoek beren zuzenbide zibil, foral edo bereziak gorde, aldatu edo garatzea, halakorik duten tokietan» (EKren 149.1.8 art.)⁵. Xedapen horrekin guztiz lotuta, eta legeria prozesala estatuaren eskumen eskusiboa dela aintzat hartuz, autonomia-erkidegoei beren zuzenbide substantiboaren berezotasunetik eratortzen diren nahitaezko berezitasun prozesalak arautzeko ahalmena ematen zaie (EKren 149.1.6 art.).

Zuzenbide substantibo eta prozesalari dagozkion xedapen horiek guztiak uztartuz, nabarmendu beharra dago EK-k ez duela berariaz kasazioa zibila xedatzen. Zeregin hori, uztailaren 1eko 6/1985 Botere Judizialaren Lege Organikoak (aurrerantzean, BJLO) gauzatzen du. Zehazki, BJLOk kasazio-errekurtso arrunta jartzeaz arduratzeko eskumen orokorra AGri esleitzen dio (56.1 art.) eta betekizun eta mugapen gehiagorekin JANeko arlo zibil eta penaleko salei (73.1.a art.)⁶. Nahiz eta kasazio-errekurtso arrunt eta autonomikoek helburuak, efektu juridikoak (interes publikoaren babesak —*ius constitutionis*— eta subjektu pribatuen interes edo eskubideen babes judiziala —*ius litigatoris*—)⁷ eta araudia partekatzen dituzten, argi geratu behar da errekurtso bakar bati ari gatzazkiola erreferentzia egiten (kasazio-errekurtso zibila). Hori horrela, espainiar kasazio-sistema osatzen duten kasazio arruntaren eta kasazio autonomikoaren arteko diferentzia nagusia haien eskuduntza-esparrua dela esan genezake: kasazio arruntaren eskuduntza AGri dagokio eta eskuduntza hori estatuaren eskumenekoak diren lege substantibo pribatuen edo lege zibil erkideen gainekoa da; kasazio autonomikoaren eskuduntza, aldis, JANei dagokie, haien zuzenbide zibil berezietatik eratortzen diren arau juridikoez arduratzeko eskumena

5. Salbuespen hori, autonomia-erkidegoen alde interpretatu behar dugu, EKren Lehenengo Xedapen Gehigarriarekin (aurrerantzean, XG) bat etorritik. XG horrek berariaz adierazten du EK-k foru-lurraldeen eskubide historikoak babestu eta errespetatuko dituela eta foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala dagokion kasuetan, EKren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo dela.

6. Konkretuki BJLOk adierazten du kasazio-errekurtsoa jar daitekeela: «Autonomia-erkidegoan egoitza duten ordena zibileko jurisdikzio-organoen ebazpenen aurka (...) baldin eta errekurtsoaren funtsa bertako zuzenbide zibil, foral edo bereziko arauak urratu izana bada eta dagokion autonomia-erkidegoak aurreikusia badu eskuduntzia hori». Zentzu horretan, gogora ekartzea komeni da BJLO indarrean sartu baino lehen (1985), autonomia-estatutuek jada, autonomia-erkidegoei zegokien kasazio-eskumena jasota zutela.

7. Helburuak zein efektu juridikoak erabat erlazionatuta daude. Interes publikoaren babesak (*ius constitutionis*), ordenamendu juridikoa babesteaz gain, arau juridikoen aplikazio egokia (funtzio nomofilaktikoa) eta hura interpretatzerako garaian jurisprudentzia uniforme bat egotea bermatzen du (funtzio bateratzailea). Horri lotuta, subjektu pribatuen interes edo eskubideen babes judizialak (*ius litigatoris*) arau juridikoaren interpretazio ezegoki baten kasuan, aurkaratutako ebazpena deuseztatzea ahalbidetzen du, gatazka juridiko konkretua dagokion auzialdian ebatziz. Beraz, bi interes aurki ditzakegu, batetik, interes publikoa eta, bestetik, pribatua. Ildo honi jarraituz, zenbait adituk legegintza zein jurisprudentziaren joera nagusia interes publikoari (arau juridikoaren babesak eta funtzio bateratzailea) pribatuari baino garrantzi handiagoa ematea dela kritikatu dute. Zentzu horretan, Loredo (2004, 198-199. or.) eta Hualde (2017).

aitortuz⁸. Beraz, lehen begiratuan, bi kasazioen arteko aldeak nimiñoak direla esan genezake, kasazio arrunta eta autonomikoa eskubide substantibo pribatu desberdinei aplikatutako erakunde berdinak direla ulertuz. Urtarrilaren 7ko 1/2000 Prozedura Zibilarren Legeak (aurrerantzean, PZL) nahiz eta bi kasazioei erreferentzia egin (447. eta 478. artikulua) eta kasazio autonomikoaren eraentza juridikoaren zenbait berezitasun xedatu, kasazio arruntaren arauketa du xede eta ardatz. Hori horrela, PZLk kasazio arrunterako aurreikusten dituen xedapen juridikoak, espainiar kasazio-sistema guztiaren oinarria direla baieztatu genezake.

Abiapuntu horretatik, aztergai dugun euskal kasazio-errekurtsoaren testuingurua egokiago ulertzeko asmoz, kasazio arruntaren eta autonomikoaren arauketari erreparatuko diogu, xedapen nagusiak azalduz eta horien diagnosi eta balorazio labur bat eginez.

1.1.1. Kasazio zibil arruntaren eraentza juridikoa: krisi-egoera etengabeen bizirauten duen eredua

Kasazio arrunta PZLko 477. eta 478. artikuluen arabera, «aurkaratzeko bide itzultzaile eta ezohikoa da, AGren ardura dena, Probintzia Auzitegiek (aurrerantzean, PA) emandako epai ez-irmoen aurrean, apelazio-errekurtsoa ebatziz, azken horiek egin dituzten arau substantiboaren aplikazioa kontrolatzeko, eta, aldi berean, jurisprudentzia sortu eta alderdien eskubideak babesteko»⁹. Eraentza juridiko honi lotuta bi ohar garrantzitsu aipatu behar ditugu. Alde batetik, errekurtso horrek ordenamendu juridikoan duen garrantzia dela-eta —izan ere, instrumentu prozesal honen bitartez ordenamendu juridikoan segurtasun juridikoa egotea lortzen da, herritar ororen babes judizial eraginkorrerako eskubidea (EKren 24. art.) eta haien arteko berdintasuna bermatuz (EKren 1. eta 14. artikulua)— beraren eraentza juridikoa, betidanik, kritika ugariaren iturburu izan da: 1855 eta 1881eko prozedura zibilarren legeetan ezarritako araubide juridikoak kritika sutsuak eragin zituen, eta, era berean, gaur egun indarrean dagoen Prozedura Zibilarren Legeak ez du lortu kritiken sugarra itzaltzea¹⁰. Are gehiago, berriki onartu den Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Prozesalari buruzko Lege Proiektuan (aurrerantzean, JZPEPLP)¹¹ instrumentu horren erreforma aurreikusten da, errekurtso horren «egonkortasun ezaren»¹² adierazle dena, edo, beste era batera esanda, agerian uzten duena errekurtso horrek bizi duen etengabeko «krisia»¹³. Beste alde batetik, garrantzitsua eta funtsezkoa da ulertzea kasazioaren inguruko eztabaida orok izaera politikoa duela. Hain zuzen ere, lehen adierazi dugunez, kasazio-errekurtsoa Frantzia sortu zen eta hasiera-hasieratik erakunde politiko bat izan zen, epaileek legea betetzen zutela kontrolatzeko erabiltzen baitzen. Beraz, jaiotzetik izaera politikoa duen instrumentu gisa ulertu behar da egun, kasazio-errekurtsoa. Modu

8. Hala ere, ez ahaztu kontuan hartu behar dela lehen adierazitako ñabardura, hau da, autonomia-erkidegoek EKren 149.1.6 artikuluari jarraikiz, beren zuzenbide substantiboaren berezkitasunetik eratortzen diren nahitaezko berezitasun prozesalak arautzeko ahalmena dutela bakarrik.

9. Definizio hori proposatzen du Ordeñanak (2020a).

10. Zentzu horretan, Delgado Castro (2009).

11. Espainiako Ministro Kontseiluak 2022ko apirilaren 12an onartu eta egun, 2022ko apirilaren 22an, Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialean publikatu ondoren, legebiltzarreko izapidetze fasean dago.

12. Iritzi horretakoa da Almagro (2007).

13. Askoren artean, Nieva (2003, 21. or.).

horretan, izaera politiko hori oinarritzat hartuz aztertu eta ulertu behar da, hala nola kasazio autonomikoaren aintzatespena eta kasazio arruntarekin partekatzen duen bizitza espainiar kasazio-sisteman¹⁴ edo kasazio-errekurtsoaren eta arau-hauste prozesalaren errekurtsoen arteko diferentzia¹⁵. Kutsu edo izaera politikoa dute, halaber, jurisprudentziaren balioaren inguruko eztabaidek —egun gertatzen den bezala iturri osagarria eta ez-loteslea izan behar du Kode Zibileko (aurrerantzean, KZ) 1.6 artikulua arabera edo zuzenbide-iturri loteslea izan beharko luke?—¹⁶ edo/eta organo judizialek (bereziki, AGk eta JANek) bete behar duten eginkizunari buruzko kritikek, horiek beren ardurapekoak dituzten errekurtsoei eta haien lan-kargari lotutakoak. Zehazki, eztabaida guztia kasazioaren konfigurazio zabal edo murriztai-lean oinarritzen da. Lehenengoaren ondorio da AGko epaien pilaketa zein atzerapena, eta bigarrenaren ondorio, berriz, jurisdikzio-ordena guztietan AGra jotzeko aukera eragozte¹⁷, jurisprudentziaren sorrera eta garapena zailduz. Ohar hauek guztiek garbi islatzen dute kasazioa, erakunde baketsua izan beharrean, etenik ez duen gerra juridiko eta politikoan murgilduta dagoen instrumentu prozesala dela.

Testuinguru horretan, kasazio arruntaren eraentza juridikoa, *lege data*, arau-hauste materialekin lotzen da (*ius iudicando*); prozesalak diren arau-uraketetarako (*in procedendo*), berriz, independentea eta apartekoa den beste errekurtso bat aurreikusten da, arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsoa hain zuzen ere, zeina PZLko 16. Xedapen Azkentzailean (aurrerantzean, XA)¹⁸ ezartzen den

14. Oso argi, gaztelaniaz, kasazio arrunt eta autonomikoaren bizikidetzaz dio: «Es el vértice oblicuo que impide la verticalidad del Tribunal Supremo en su actividad de garantizar la nulidad de todas las normas jurídicas civiles, así como la unidad de su interpretación» (Lorca, 2022, 5. or.).

15. Bi errekurtso horien arteko diferentzia testuinguru politikoa kontuan izanik aztertu behar dela dio Victor Moreno Catena-k Loredoren (2004, 18. or.) liburuaren hitzaurrean, azalduz arau-hauste prozesalaren errekurtsoa JANei aitortu zitzaie «probablemente (...) (con) afán de que esos TSJ aparezcan como órganos propios de las Comunidades Autónomas (...) cerrando una organización de tribunales propia, administrada desde la CCAA, y en alguna medida ajeno o al margen del resto de los órganos jurisdiccionales del Estado».

16. Lehenengo posizioari dagokionez, PZLren Zioen Azalpenak hau dio: «Espainiako sistema juridikoan, aurrekariak ez du indar loteslerik; indar loteslea atxikitzen zaie legeari eta zuzenbide objektiboaren gainerako iturriei bakarrik. Horregatik, guztiontzat berebiziko garrantzia du aurrekariarekin lotutako doktrinaren eraginkortasun eredugarriak; aurrekari hori, aginduzkoa barik, aginte juridiko bereziaz hornitutakoa izan behar da», zentzu horretan, nabarmentzen du gogoratu behar dela jurisprudentziak edo aurrekariak benetako garrantzia dutela Espainiako sistema juridikoan «ez beren indar lotesleagatik, baizik eta beren aginte eta indar eredugarriarengatik. Aginte horrek jatorria du erabakiaren kalitatean, horren justifikazioan eta justifikazio hori adierazteko modu arduratsuan. Aginte edo autoritate hori, *case law* sistema juridikoetan garrantzitsu bihurtzen ari da. Gainera, aginte hori da eta izango da, kasazioan emandako epaiei, kasu zehatzetatik haratago, egotz dakiekeen bakarra». Hala ere, eta bigarren posizio edo iritzia defentsan, BJLOren erreforma-aurreproiektu batean, Ministro Kontseiluak 2014ko apirilaren 4an onartu zuena, AGren jurisprudentziak indar loteslea izatea aurreikusten zen («doctrina jurisprudencial vinculante del TS»). Zentzu horretan, Armenta-k (2018) sistema horren inguruan gaztelaniaz adierazten du: «La doctrina reiterada que estableciera el Tribunal Supremo como *ratio decidendi* de sus resoluciones al interpretar y aplicar la ley, las costumbres y los principios generales del derecho devendría complementaria del ordenamiento jurídico, integrando una nueva fuente del derecho».

17. Horri dagokionez, bi dira eztabaidaren ardatz edo elementu nagusiak: batetik, «kasaziora sartzeko atea», hau da, onarpen zioak edo arrazoiak, eta bestetik, errekurritu daitezkeen ebazpenak eta horien izapidetzea, onarpen fasean arreta berezia jarrita.

18. Xedapen horrek ezohiko helegiteen jatorrizko eraentza partzialki etetea dakar, eta gehienbat arau-hauste prozesalaren errekurtsoari eragiten dio (PZLren 466, 468, 472, 476.4, 490-493 artikulua), kasazioari ere eraginez (PZLren 466. eta 488. artikulua), eta, bereziki, haien arteko harremanari (16.2.

erregimen iragankorrak baldintzatzen duen¹⁹. Halaber, aintzat hartu behar da, egun indarrean dagoen araubide iragankor hori aplikatzeko, eta bereziki, kasazio-errekurtsoaren onarpenaren PZLko xedapenak interpretatzeko, AGk 2017ko urtarrilaren 27an onartutako «Kasazio-errekurtsoa eta arau-hauste prozesalaren errekurtsoak onartzeko irizpideei buruzko Akordioa» (aurrerantzean, gaztelaniazko siglekin bat etorritik, ACARCIP)²⁰ erabiltzen dela oinarritzat. Horregatik guztiagatik, doktrinaren aburuz, indarrean dagoen araubidea «osatugabea, nahasia, zalantzakoa, batzuetan ulertezina, legegintza-teknikarik gabea, eta batez ere, interpretatzeko oso zaila»²¹ da. Horren haritik, JZPEPLPk dio indarrean dagoen erregimenak gabezia larriak²² dituela eta egungo ereduaren porrota egitate ukaezina dela. Modu horretan, JZPEPLPk errekurtsoa sinplifikatzeko apustua egiten du, prozesu motaren edo zenbatekoaren mende ez dagoen²³ kasazio-errekurtso bakarra aurreikusi beharko

XA). Modu honetan, bi erregimen horiek, arau-hauste prozesalean oinarritutako errekurtsoaren eta azken horren eta kasazio-errekurtsoaren arteko araubidea desberdina izatea eragiten dute. Bi errekurtsoak hasieran aurreikusitako eta aldi baterako etenda dagoen eraentzaren arabera ordenatzen dira. Hasieran aurreikusitako eraentza hori inoiz ez denez indarrean sartu, doktrinak gaztelaniaz, «régimen abortado» edo «régimen nonato»-tzat kalifikatu du. Ikus, Vecina (2001). Halaber, kontuan hartu behar da legegileak bi helegiteak bateraezintzat jotzen dituela, eta ondorioz, justiziapekoak behartuta daudela kasu konkretu baten aurrean, horietako bat jartzera, bi kasuetan, gauza epaituaren balio duen epai batekin amaiera emanaz prozesuari.

19. Bi hamarkada indarrean daramatzan erregimen iragankor horren arabera, AGko lehenengo Salari dagokio bi errekurtsoez arduratzea. Arau-hauste prozesalaren helegitea jar daiteke, kasazio-errekurtsoa jar daitekeen ebazpenei dagokienez (epaiak eta ez autoak). Gainera, arau-hauste prozesalaren errekurtsoa jar daiteke —betiere, kasazio-errekurtsoa aldi berean jarri ez bada— oinarritzko eskubideen babes judizialerako epaiak aurkaratzen direnean edo horien zenbatekoa 600.000 eurotik gorakoa denean. Auzilari batek, ebazpen beraren aurka, arau-hauste prozesalaren errekurtsoa eta kasazio-errekurtsoa jarri nahi baditu, bi errekurtsoen izapidetzea prozedura bakarrean egingo da. Salak, lehenik eta behin, errekurritutako ebazpenari kasazio-errekurtsoa jar dakiokkeen aztertuko du, eta, kasazio-errekurtsorik ezin bada jarri, arau-hauste prozesalean oinarritutako errekurtsoa ez du onartuko. Bi errekurtsoak onartzen badira, arau-hauste prozesalaren errekurtsoaren inguruan ebatziko da beti lehenengo; eta errekurtso hori onartzen ez denean bakarrik aztertu eta ebatziko da kasazio-errekurtsoaren inguruan. Laburbilduz, azaldu berri dugun araubide iragankor hori, hasiera batean aurreikusitakoarekin alderatuz, askoz ere murriztailleagoa da. Zentzu horretan, doktrinaren boza anitz altxatu dira, erregimen honen iragankortasun-izaera babestuz eta gaitzetsiz. Lehenengo jarreraren alde agertzen da Gimeno (2009); aldez, erregimen iragankorraren kontra agertzen da eta, beraz, hasiera batean aurreikusitako araubidearen aplikazioa defendatzen du Fernández-ek (2009).

20. Akordio horrek egungo praktika juridikoan duen garrantzia kritikoki aztertzen du Ordeñanak (2020a) akordioa deuseztatzeko aldarria eginez. Autorearen aburuz, akordioa ez da legegintza-iturria, eta gainera, PZLn ezartzen den eraentzan distortsio handiak eragin dituela nabarmen du. Hori horrela, espainiar ordenamendu juridikoan kasazioaren araubidea hobetzeko helburuarekin, PZL erreformatzearen alde agertzen da. Haren iritzi berekoak dira Banacloche (2011) eta Buendía (2012). Kontrara, akordio mantentzearen alde agertzen dira, errekurtso horiek onartzeko irizpideak argigarriago egin dituela goraipatuz, Picó i Junoy (2017) eta Villanueva (2017).

21. Hitzez hitz, gaztelaniaz, Nieva (2001).

22. Hiru gabezia edo disfurtzio larri aipatzen ditu JZPEPLPk: arau-hauste prozesalaren errekurtsoaren onarpena, arau substantibo baten urraketaren kasazio-interesa frogatu beharri baldintzatuta egotea, bigarrenik, arau haustearen izaera prozesal edo substantiboaren arabera bi errekurtso ezberdin aurreikusita egotea eta azkenik, horietara sartzeko hiru sarbide aurreikusi izana (oinarritzko eskubideen babes judiziala, 600.000 baino gehiagoko kantitatea eta kasazio-interesa).

23. Zentzu horretan, funtsezkoa da gogora ekartzea ACARCIPen arabera, PZLren 447.2 artikuluan xedatzen diren ebazpenez gain («bigarren auzialdian PAek emandako epaiak»), kasazio-errekurtsoa jar daitekeela nazioarteko edo Europar Batasuneko erregelamendu, itun edo hitzarmenen arabera aurkaratu daitezkeen autoei dagokionez, betiere, hurrengo hiru baldintzetatik edozein betetzen bada (PZLren 477.2

litzatekeela adieraziz eta arauen interpretazioa kasazio-interesean murgildu beharko litzatekeela nabarmentzen du, arauen izaera —substantiboa edo prozesala— edozein izanda. Gainera, kasazio-prozeduraren gehiegizko formalismoak²⁴ eta horri lotutako onarpen fasearen diseinu konplexuak AGko lehenengo Salak kasazio-errekurtsoak ebazteko erabiltzen duen denbora neurrigabea izatea eragiten dute²⁵. Ildo horretatik, JZPEPLPk aurreikusten duen erreformaren helburua AGko lehenengo Salaren bizkortasuna bermatzea dela dio, onarpen fasearen izapidetzea sinplifikatuz eta sistema zibila beste jurisdikzio-ordena batzuetan (administrazioarekiko auzietan edo lan-arloko auzietan) erabiltzen diren eredu berri eta azkarragotara egokituz²⁶. Halaber, eta, aurreko kritiken ildo beretik, PZLren eraentza juridikoa (479-487 artikulua) ACARCIPen xedatzen denarekin uztartzeak segurtasun juridikorik eza sortzen duela gaineratu dute aditu anitzek²⁷.

1.1.2. Kasazio autonomikoaren eraentza juridikoa: bi eredu

Deskribatu berri dugun krisi-egoerak ez du etenik izan kasazio-errekurtsoaren bizitzan. Gaur egun, ikusi dugunez, bere horretan jarraitzen du. Testuinguru horretan, zein da, baina, kasazio arruntaren bizikidea den kasazio autonomikoaren egoera? Lehenik eta behin, berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoetan kasazio autonomikoari lotutako bi eredu bereizi behar ditugu: alde batetik, kasazio autonomikoa erregulatzeko berezko legerik ez duten autonomia-erkidegoak eta urteak daramatzatenak haien kasazioa garatzen kasazio arruntaren eraentza juridikoan oinarrituz (eredu horri jarraitzen diote Valentziak, Extremadurak, Nafarroak eta Balear Uharteek); eta bestetik, lege konkretu batean haien kasazioa erregulatzen dutenak (Galizia, Aragoi, Katalunia eta talde honi, aztergai dugun legearen bitartez, berriki atxiki zaion Euskal Autonomia Erkidegoa (aurrerantzean, EAE)). Euskal kasazioari heldu baino lehen, bi ereduaren aspektu orokorrak aztertzea interesatzen zaigu. Lehenengo eredia aztertzeak interesa du EAEk utzi berri duena baita, eta bigarrenari ere arreta jarriko diogu, aipatutako autonomia-erkidego horien lege berezi edo espezifikoak erreferenteak izan baitira aztergai dugun euskal kasazio-errekurtso zibilaren legea egiteko orduan.

eta 477.3 artikulua): (1) oinarritzko eskubideen babes judizialerako eman behar izatea, babes judizial eraginkorrerako eskubidea salbu (EKren 24.2 art.), (2) zenbatekoak zehaztutako prozesu arrunt baten emaitza izatea (PZLren 249.2 art.), kantitatea 600.000 eurotik gorakoa izanik (*summa cassationis*) eta (3) gatazka juridikoak kasazio-interesa izatea.

24. Askoren artean, Picó i Junoy (2017).

25. Zehazki, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (aurrerantzean, BJKN) azken estatistiken arabera, batez beste 33 hilabate behar izaten ditu AGk. Iturria: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Estadistica-Judicial/Estadistica-por-temas/Actividad-de-los-organos-judiciales/Estimacion-de-los-tiempos-medios-de-los-asuntos-terminados/>. Askoren artean, AGren moteltasuna kritikatzeko du Delgado Castro-k (2009).

26. Horiek arreta berezia jarri beharko diote kasazio-interesa eta errekurtsoa izapidetzeko onarpen-autoen arrazoiketari. Zentzu horretan, aurretik ebatzi den gatazka juridiko baten inguruko jurisprudentzia-doktrina existitzen bada eta aurkaratutako ebazpena azken horren kontra bada, errekurtsoa auto bidez ebaztea aurreikusten da, AGren lan-karga arintzeko helburuarekin.

27. Horien artean, Ordeñanak (2020a) zenbait adibide aztertzen ditu zeintzuetan segurtasun juridikoa kolokan jartzen den. Adibidez, autoreak aipatzen du PZLk oso modu eskasean arautzen duela errekurtsoa jartzeko idatzaren forma (481. art.) eta ACARCIPek, aldiz, horren edukia eta forma zehatz-mehatz zehazten dituela.

Lehenengo taldeari dagokionez, adierazi berri dugun moduan, Valentziak, Extremadurak, Nafarroak eta Balear Uharteek haien zuzenbide zibil autonomikotik eratorzen den eta dagokion autonomia-estatutueta²⁸ aitortzen den kasazio autonomikoa dute, baina ez dute hura erregulatzeko duen lege berezirik. Lege zehatz baten gabeziaren aurrean, kasazio autonomikoa PZLko xedapenei jarraikiz garatzen dute PZLk kasazio arrunterako aurreikusten duen erregulazioa dagokion autonomia-erkidegoaren egoerara moldatuz. Hasiera batean zeregin erraza dirudien arren —bi kasazioak modu berean definitzen baitira, lurralde-eremuk (estatua ez, baizik eta autonomia-erkidego jakin bat), eremu-objektiboko (zuzenbide autonomikori dagozkion arau zibilen urraketa) eta eremu funtzionaleko (JANen eskumena) desberdintasunak salbu—, erraza dirudiena, praktikan, arazoz jositako eginkizun konplexu bilakatzen da. Lehenengo arazoa errekurritu daitezkeen ebazpenetan aurki dezakegu. Jakina denez, kasazio-errekurtsoa bigarren auzialdian PAek emandako epaien kontra jar daiteke (PLZren 477.2 art.) — eta kasazio autonomikoan, haien lurralde-eremuk PAek emandako epaien kontra dagokion zuzenbide zibil autonomikoaren aplikazioan— eta ACARCIPek kasazioa jartzeko aukera ematen du nazioarteko edo Europar Batasuneko erregelamendu, itun edo hitzarmenen arabera aurkaratu daitezkeen autoen kontra. Puntu honetan lehenengo arazoa sortzen da; izan ere, Nafarroako eta Balear Uharteetako JANek ez dute ACARCIP onartzen, akordio horrek AGrentzat soilik loteslea dela adieraziz²⁹. Gainera, dakigunez, ebazpenei hiru baldintzen betekizuna galdatzen zaie. Hiru betekizun horiek kasazio autonomikora moldatzeko edo egokitzeke unean bigarren arazoa sortzen da. Lehenengo betekizuna, hau da, oinarrizko eskubideen babes judizialerako eman behar izatea, ezin da aplikatu; izan ere, oinarrizko eskubideen gaineko erregulazioa estatuari dagokio eta, ondorioz, kasazio arruntari³⁰. Beraz, lehenengo betekizuna alboratuta, kasazio autonomikora sartzeko bideak beste bi betekizunetara mugatzen dira, hau da, diru-zenbatekoak zehaztutako prozesura eta kasazio-interesera. Lehenengoari dagokionez, dakigunez, prozesuaren kantitateak 600.000tik gorakoa (*summa cassationis*) izan behar du. Zentzu horretan, AGren kolapsoa saihesteko helburuarekin ezarri zen kantitate hori gehiegizkoa da JANentzat³¹, batez ere kontuan hartzen badugu azken horien lan-karga AGk duenarekin alderatuta askoz ere txikiagoa dela. Kasazio-interesari helduz, PZLren 477.3 artikulua kasazio arrunterako aurreikusitako 3 kasuei (AGren jurisprudentziari

28. Horrela, estatutuen indarreko bertsioaren arabera, eta antzinatasuna kontuan hartuta sailkatuta: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena (10.5 eta 14.1 artikulua); 1/1981 Lege Organikoa, apirilaren 6koa, Galiziako Autonomia Estatutuari buruzkoa (22 eta 27.5 artikulua); 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10koa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa (61.1 art.); 1/2006 Lege Organikoa, apirilaren 10koa, Valentziako Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren uztailaren 1eko 5/1982 Lege Organikoa aldatzen duena (41. art.); 6/2006 Lege Organikoa, uztailaren 19koa, Kataluniako Autonomia Estatutua aldatzen duena (95. art.); 1/2007 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa, Balear Uharteetako Autonomia Estatutua aldatzen duena (94.1 a art.); 5/2007 Lege Organikoa, apirilaren 20koa, Aragoiko Autonomia Estatutua aldatzen duena (63.2 art.) eta 1/2011 Lege Organikoa, urtarrilaren 28koa, Extremadurako Autonomia Estatutua aldatzen duena (50.2 a art.).

29. Kontu hori nabarmentzen du Bassols-ek (2007).

30. Zentzu horretan, Muñoz (2004).

31. Doktrinan erabateko ahobatezkotasuna dago kontu horren inguruan. Askoren artean, ikus, Bonet (1993) eta Iriarte (2014).

kontra egitea; PAen jurisprudentzia kontraesankorrarekin lotutako kontuak eta gaiak ebaztea; edo indarrean 5 urte baino gehiago ez daramaten arauak aplikatzea, eduki bera edo antzekoa duten aurreko arauetako buruzko AGren jurisprudentziarik existitzen ez denean) kasazio autonomikorako 2 kasu gehiago gehitzen dizkie: lehenik, aurkaratutako ebazpena dagokion JANaren jurisprudentziaren kontrakoa izatea, eta, bigarrenik, dagokion zuzenbide autonomikoko arauetako buruzko doktrinarik ez existitzea kasuan kasuko JANan. Zentzu horretan doktrinak zalantzan jartzen du kasazio-interes autonomikoak aipatutako 5 kasuak barne hartzen dituen ala azken biak bakarrik³². Kontua ez da hutsala edo garrantzirik gabekoa; izan ere, bigarrena ontzat jotzen badugu, JANen jarduketara AGrengandik banantzen dugu, hau da, modu inplizituan onartzen ari gara zuzenbide autonomikoaren arloan edo esparruan JANak direla jurisprudentzia finkatzeko funtzioa duten auzitegi bakarrak. Aitzitik, lehenengo jarreraren alde agertzen bagara, JANak ez dira izango zuzenbide autonomikoaren eremuan jurisprudentzia finka dezaketen bakarrak, AGri ere aukera hori zabalduz. Modu berean, deskribatu berri dugun segurtasun juridikorik eza edo ziurgabetasun-egoera hori ere antzeman dezakegu ACARCIPEk erregulatzen dituen eta autonomia-erkidegoek aplikatzen ez dituzten zenbait konturen inguruan, hala nola errekurtsoen onarpenean edota haren izapidetzean

Horregatik guztiagatik, PZLren xedapen ia guztiak kasazio arruntari dagozkiola berretsita eta errekurtsio honen testuinguru eta errealtateak kasazio autonomikoarenarekin bat egiten ez duela egiaztatuta —bereziki, AGren eta JANren lan-karga desberdinagatik eta bata eta besteak bideratzen dituzten gatazken garrantzi juridiko-ekonomiko ezberdinagatik—, gure aburuz, kasazio arruntaren araubidea kasazio autonomikora aplikatzeak zaildu eta oztopatu egiten du kasazio autonomikoak bere funtzioak betetzea, zuzenbide autonomikoarekin lotuta galdatzen zaizkionak. Ondorioz, egoera honetan, euskal legegileak euskal kasazio-errekurtsio zibilari buruzko lege berezi bat egin izana —jarraian aztergai duguna— txalotzen dugu. Gure uste apalean, euskal legegileak premiazkoztat jo du zeregin hori bi arrazoi direla bide: batetik, kasazio arruntaren araubide erkideak eragiten dituen gabeziak zuzentzeko, eta, bestetik, kasazio zibilak euskal zuzenbide zibilararekin lotuta duen funtzioa bermatzeko.

Bigarren taldeari erreferentzia eginez, haien zuzenbide zibil substantiboaren berezotasunean oinarrituz (EKren 149.1.8 art.), honako autonomia-erkidego hauek beren kasazio autonomikoak lege berezi batean jaso eta arautu dituzte: antzinatasunaren arabera, zeregin hori burutu zuen lehena Galizia izan zen eta ondoren Aragoik eta Kataluniak jarraitu zioten, eta orain EAEk. Horiek, beren lege berezietan jaso zuten eraentza juridikoaren aspektu edo ezaugarri orokorreari so egin baino lehen, eta hasieran adierazi dugun eskumen-esparrua aintzat hartuz —estatuak legeria zibilarren gaineko eskumen eskusiboa du, baina autonomia-erkidegoei haien zuzenbide zibila, foruduna nahiz berezia, mantendu, aldatu edo garatzeko aukera ematen zaie (EKren 149.1.8 art.) eta, modu berean, legeria prozesala estatuaren eskumen eskusiboa da, baina autonomia-erkidegoei zuzenbide substantiboaren berezotasunetik eratortzen diren nahitaezko berezitasun prozesalak arautzeko

32. Lehengoaren aldekoak dira, Bonet (2000, 221. or.), López (2002, 301-302. or.) eta Ortells (2002). Bigarrena, berriz, ontzat jotzen dute Muñoz-ek (2004) eta Martí-k (2010, 539. or.).

ahalmena ematen zaie (EKren 149.1.6 art.)—, berebiziko garrantzia du gogora ekartzeak KAren 47/2004 epaia, martxoaren 25ekoa. Epai horrek uztailaren 15eko galiziar kasazio-errekurtso zibilari buruzko 11/1993 Legearen kontrako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa ebatzi zuen. Bertan nabarmendu zen zuzenbide zibil autonomikoaren hutsak ez zuela justifikatzen horren eragin prozesalak erregulatzeko aukera. Beraz, KAK garbi adierazi zuen autonomia-erkidegoei esparru honetan aintzatesten zitzaien eskumen-tituluak izaera mugatua duela³³. Zentzu horretan, argitu zuen, autonomia-erkidegoek beren kasazio zibila erregulatzeko posible izateko, lau betekizun bete beharko zituztela: (1) zuzenbide zibil autonomikoa izatea, (2) zuzenbide zibil autonomikoak izaera bereziko berezkotasunak izatea, (3) berezitasun prozesalak dagokion zuzenbide substantiboaren espezifikotasuna babesteko ezartzea, (4) kasuan kasuko autonomia-estatutuak berezitasun-ahalmen hori aitortzea³⁴. Ondorioz, KAren interpretazioari jarraikiz, argi geratu dadila, autonomia-erkidegoek ez dutela eskumenik haien kasazio zibil autonomikoaren inguruko elementu guztiak erregulatzeko. Kontrara, beren eskumena, Estatuko legeria prozesala aplika ezin dakiekeen eta beren zuzenbide substantiboaren berezkotasunetik eratortzen diren elementuen gainekoa da soilik (EKren 149.1.8 art.). Aurreko horri funtsezko hiru ñabardura gehitu behar dizkiogu: lehenik, kontuan hartu behar da araubide autonomiko prozesala bide bakarra dela esparru autonomikoari dagozkion eskubide subjektibo materialak babesteko (estatuko araubide prozesalak ez baititu horiek babesten)³⁵; bigarrenik, legegile autonomikoak kasuan kasuko zuzenbide zibil autonomikotik eratortzen diren berezkotasun substantiboak eta premia prozesal bereziak azaldu beharko ditu³⁶, eta hirugarrenik, estatuak ezin dituela arautu aipatu berri ditugun beharrizan prozesal berezi horiek³⁷, horien arauketa autonomia-erkidegoen esku geratzen baita, betiere, EK eta estatuko eraentza juridiko prozesala errespetatzen delarik³⁸. Beste esparru guztiak, hau da, autonomia-erkidegoaren berezitasun prozesala ez den guztia, PZLk arautuko du.

Ingurumari horretan, kasazio autonomikoa arautzen duten lege berezien elementu garrantzitsuenak edo funtsezkoenak aztertuko ditugu³⁹. Aipatu dugunez, Galizia izan zen bere kasazio autonomikoa arautzeko lege espezifikoko bat egin zuen lehenengo autonomia-erkidegoa⁴⁰. Modu berean, kasazioa jartzeko diru-

33. Literalki, KAK gatzelaniaz dio: «Las singularidades procesales que se permiten a las CCAAs han de limitarse a las que, por la conexión directa con las particularidades del Derecho sustantivo autonómico, vengán requeridas por éstas». Beraz, argi geratzen da ez gaudela zuzeneko edo automatikoa den eskuduntza baten aurrean. Zentzu horretan, ikus, Sarmiento (2004).

34. Antzera azaltzen ditu Pareja-k (2013).

35. Iritzi berekoak dira Gimeno (2010) eta Cabellos (2011).

36. Zentzu horretan KAren 47/2004 epaian, martxoaren 25ekoan, aurreko jurisprudenzia-ildo horri jarraituz, zehazten da «o en su defecto, quienes asuman la defensa de la ley, en su caso impugnada». Doktrina honetan sakontzeko, ikus Martí, 2010, 544. or..

37. Gure iritzi berekoa da Busto (2004).

38. Legegile autonomikoak errespetatu behar dituen printzipio konstituzional eta jurisdikzionalak zehazten eta aztertzen ditu Alonso-k (2007, 9-11. or.).

39. Azterketa sakonago eta zehatzago baterako, ikus Ordeñana (2020b).

40. Hain zuzen ere, autonomia-estatutuak aitortzen zion eskumena baliatuz (22 eta 27.5 artikulua) Galiziako zuzenbide zibil bereziaren arloko kasazio-errekurtsoari buruzko uztailaren 15eko 11/1993 Legea egin eta indarrean jarri zuten, beren zuzenbide zibil autonomikotik eratortzen ziren berezitasunei erantzuteko helburuarekin (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 art.) eta (hitzaurrean hitzez hitz) adierazten den moduan «para hacer posible que el acceso a dicho recurso de casación sea efectivamente

zenbatekoren betekizuna desagerrarazi zuen lehena izan zen. Gainera, errekurtsua jartzeko ziotzat jo zuen froga hautematean egindako akatsa, betiere, frogatzen bazen epaileak akats hori burutu zuela usadio eta ohiturak urratzen zituzten egitateak ezagutzen ez zituelako. Aragoiko legeari dagokionez, bere JANari «errekurtsu misto» direlakoez arduratzea esleitu zion lehen lege autonomikoa izan zen, hau da, berezko zuzenbidearen urraketan ez ezik, zuzenbide erkidearen edo estatuko zuzenbidearen urraketan ere oinarritzen diren errekurtsuez arduratzeko ahalmena aitortu zuen lehenengo aldiz. Era berean, diru-zenbatekoaren irizpidea moldatu zuen —nabarmenki haren balioa gutxituz— adieraziz autonomia-erkidego horretan kasazio-errekurtsua jar zitekeela PAK bigarren auzialdian emandako epaien aurka, auziaren zenbatekoa 3.000tik gorakoa zenean edo haren zenbatekoa kalkulatu ezin zenean, ezta modu erlatiboan ere. Gainera, kasazio-interesa modu zabalean arautu zuen, kasu hauetan ematen zela zehaztuz: (1) aurkaratutako epaiak —Aragoiko zuzenbide zibilaren arauak aplikatuz eman dena— Aragoiko Justizia Auzitegi Nagusiaren edo AGren jurisprudentzia-doktrinari kontra egitea edo doktrina hori ez existitzea aplikagarriak ziren arauetara dagokienez, (2) errekurritutako epaiaren bidez, PAREN jurisprudentzia kontraesankorra existitzen zen puntuak eta gaiak erabakitzea, eta (3) errekurritutako epaiaren bidez, Aragoiko zuzenbide zibilari zegozkion eta 5 urte baino gehiago indarrean ez zeramaten arauak aplikatuko balira, baldin eta arau horien eduki bera edo antzekoa zuten lehenagoko arauetara buruzko jurisprudentzia-doktrinari ez bada existitzen⁴¹. Azkenik, Kataluniako legeari helduz, bertan errekurtsu mistoak ere aurreikusi ziren, haien ardura Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiari esleitu. Era berean, azken horri egotzi zitzaion kataluniar zuzenbide zibilarekin lotutako arau baten edo doktrinaren urraketa, AGn kasazio-errekurtsorik ezin jar zitekeen kasuetan⁴². Kasazio-errekurtsora «sartu» ahal izateko betekizun bakartzat jo zen kasazio-interesa, honako kasu hauekin identifikatuta: (1) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren edo Kataluniako Kasazio Auzitegiaren epaiekin lotutako doktrina kontraesankorra, edo (2) Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren edo Kataluniako Kasazio Auzitegiaren jurisprudentziarik ez egotea, berariaz xedatuz arauaren indarraldiak ez zuela inola ere eragotziko kasaziora jotzea⁴³.

viable». Lege horren azterketa integrala eta gogoeta kritikoa egin du Nogueira-k (1993). Dakigunez, galiziar kasazio-lege hori indarrean jarri zen urte berean, Espainiako Gobernuako presidentek, haren auka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua jarri zuen KAN. Era berean, jakina denez, KAK hamarkada bat geroago ebatzi zuen auzia, martxoaren 25eko KAREN 47/2004 epaiaren bidez. Sententzia horretan, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua partzialki onartu zen, eta gaiari buruzko doktrinari garrantzitsuena finkatu zen. Doktrina horren oihartzuna gaurdaino irisi da eta, zalantzarik gabe, aurrerago indarrean jarri ziren kasazio autonomikoko legeak horri men egiten saiatu dira (galiziarra bera, aragoiarra, katalana eta esku artean dugun euskal legea).

41. Aragoiko legearen kontu horiek guztiak kritikoki aztertzen ditu Hernández-ek (2000, 3.291-3.320. or.).

42. Erreserba hori ez da guztiz ulertzen: izan ere, BJLOren 5.4 artikulua arabera, konstituzio-arau baten urraketaz arduratzea beti dagokio AGri, materia, zuzenbide aplikagarria eta jurisdikzio-ordena edozein delarik ere. Iritzi bera du Pareja-k (2013).

43. Gure uste apalean, puntu horretan kataluniar legeak kasaziora sartzeko betekizunak eta aurkaratzeko zioak edo arrazoiak nahastu egiten ditu.

1.2. Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzko 4/2022 Legearen garrantzia eta aztergaia jorrazteko pausoak

Deskribatu dugun espainiar kasazio-sistemaren testuinguru horretan integratu berri da maiatzaren 19ko 4/2022 Legea (aurrerantzean, EKEZL)⁴⁴, Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzkoa. Haren analisi juridikoan murgilduko gara espainiar kasazio-sistemari egiten dizkion ekarpen nagusiak aztertzeke xedearekin. Zentzu horretan, lege berri horrek estatuko araubidearekiko edo beste autonomia-erkidego batzuekiko izan ditzakeen desberdintasunez gain, sistema hobetzeko helburua duten xedapenetan jarriko dugu arretan, horiek pizgarri gisa funtziona baitezakete beste autonomia-erkidegoek beren kasazio-lege bereziak egin ditzaten.

EKEZLren azterketa juridikoaren —objektiboa zein subjektiboa— bidea pauso hauetan banatuko dugu: lehenik eta behin legearen aurrekariari eta izapidetze faseko gakoei so egingo diegu. Jarraian, legearen ezaugarri orokorrak aztertuko ditugu, arreta berezia jarritz Zioen Azalpenean (aurrerantzean, ZA) legearen beharrezkotasunaren inguruan egiten den argudiaketari. Ondoren, euskal kasazio zibila arautzeko lege berri honen giltzarria aztertzeraz igaroko gara, hau da, kasazio-interesa derrigorrezko betekizun bakantzat jotzea. Halaber, kasazio-errekurtsoaren objektu izan daitezkeen ebazpenak eta errekurtsoa ez onartzeko zioak ikertuko ditugu. Azkenik, lege berriaren indargune eta ahuleziak ikertuta eta, betiere, kasazioa arautzeko euskal legegilearen jarrera txalotuta, legearen diagnosi edo hausnarketa kritikoa eginez amaituko dugu.

2. Legearen aurrekariak

2.1. Iraganeko eraentza juridikoari begirada azkar bat

Jakina denez, EKEZL indarrean jarri baino lehen, EAE kasazioa arautzen ez zuten autonomia-erkidegoen taldean baneraten zen. Hori horrela, euskal kasazio zibilari PZLren eraentza juridikoa aplikatzen zitzaion eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak JANACARCIP aplikatzen zuen arren, lehen azaldu ditugun egokitzapen-edo moldaketa-arazoak ez ziren ekiditen, distortsio ugari sortzen zirelarik. Egoera horretan, bai doktrinaren aldetik, bai magistraturaren aldetik, euskal kasazioa lege berezi batean arautzeko aldarria ohikoa zen⁴⁵. Eskakizun hori, Eusko Legebiltzarrari zuzentzen zitzaiona, hiru arrazoi nagusitan oinarritzen zen; batetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren lan-karga txikia nabarmentzen zen; bigarrenik, PZLk ezartzen zituen aurkaratze-irizpideak aplikatzeko zailtasuna, eta, hirugarrenik, zuzenbide zibil autonomikoaren inguruko jurisprudentzia sortzearen beharra. Eskaera errealitate bihurtzeko bidean, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea (aurrerantzean, EZZL) onartzea, eta bereziki lege horren bidez sortu zen Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordea (1. XG), erabakigarria izan zen. Batzorde horrek mahaigaineratu zuen lehentasunezko zeregina zela euskal kasazio zibilaren lege-proiektu bat egitea. Zentzu horretan adierazi zuen beharrezkoa zela euskal kasazio

44. 2022ko ekainaren 1ean *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratu zen eta urte bereko ekainaren 15ean *Estatuko Aldizkari Ofizialean*.

45. Doktrinan, askoren artean, ikus Lorca (1988). Magistraturan, Iriarte (2014).

zibilaren lege-proiektu bat egitea, bi betekizun nagusirekin: batetik, kasaziora sartzeko kantitatearen betekizuna txikiagotzeko, eta bigarrenik, kasu propio gehiago ezartzeko, euskal zuzenbide zibilaren berezkitasunetatik eratorritakoak, jurisprudenzia sortu eta garatzeko.

2.2. Legearen izapidetze-prozesuko gakoak edo funtsezko elementuak

EKEZLren azken testura edo idazketara iristeko bidean eman ziren hiru pauso interesatzen zaizkigu, zehazki, legearen izapidetze faseari dagozkion hiru urrats: euskal kasazio-legearen aurreproiektuaren inguruan Eusko Jaurilaritzak alde aurretik egindako kontsulta, aurreproiektua bera, eta, azkenik, BJKNk azken horren inguruan egindako txostena. Beraz, horien guztien oinarria den aurreproiektua aztertuko dugu, arreta berezia eskainiz BJKNk bere txostenean jasotako kritikei, ondoren, legearen azken idazketa hobekiago uler dezagun. Gure ikerketa onartutako legearen azken testuan zentratzen bada ere, legearen izapidetze-prozesuan emandako funtsezko elementu horiei erreferentzia labur bat egiteari beharrezkoa deritzogu, non gauden jakiteko, nondik gatozen ulertzea ezinbestekoa baita.

Hori horrela, lehenengo dokumentuari dagokionez, euskal exekutiboak —Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 113. artikulua betez— legearen lehen proposamena edo bertsioa idatzi aurretik kontsulta publikoa egin zuen kasazioari buruzko euskal legearen aurreproiektuari buruz. Dokumentu horretan, lehenik eta behin, ekimen horrekin irtenbidea eman edo konpondu nahi ziren arazoak zehazten ziren: EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren lan-karga eskasa eta euskal zuzenbide zibilaren inguruan jurisprudenzia sortzeko beharra. Gainera, proiektatutako legearen beharra azpimarratu zen, PZL-ren eraentza juridikoak euskal zuzenbide zibilaren benetako beharrei ez baitzien erantzunik ematen. Ildo horri jarraituz, argudiatu zen euskal kasazio zibila kasazio arruntaren eskakizun zorrotzei moldatzeak eragin zuela euskal zuzenbidearekin lotutako gai eta erakundeak kasazio-epaitzatik kanpo uztea. Aintzat hartu behar da azken horiek, nahiz eta balorazio ekonomiko prozesal mugatua izan, euskal gizartean urte luzez errotutakoak direla eta gatazka sozial handiko gai eta erakundeei dagozkiela. Azkenik, Eusko Legebiltzarrak kontsulta publikoaren dokumentuan etorkizuneko legearen xedeen berri ematen zuen: zenbatekoaren betekizuna ezabatzea eta kasazio-interesa derrigorrezko aurkaratze-betekizun bakartzat ezartzea. Modu honetan, diru-zenbatekoaren aurkaratze-betekizuna kentzeak ekar zitzakeen abantailak nabarmentzen zituen. Azken batean, diru-zenbatekoaren betekizunak kanpo uzten zituen balio ekonomiko txikia edota kalkulazina izateagatik, euskal zuzenbide zibilean garrantzi handia zuten gaiak edo euskal zuzenbide zibilaren interpretazioarekin lotuta kasazio-interesa zutenak.

Aurrekari horietan oinarrituz aurreproiektuaren lehenengo zirriborroa 2019ko ekainaren 20an onartu zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez. Lehenengo zirriborro hori ZAK, 6 artikuluk eta Xedapen Iragankor (aurrerantzean, XI) batek osatzen zuten. Laburbilduz, ZAn aipatzen ziren gako nagusiak hauek ziren: lehenik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari zegokion doktrinaren funtzio-bateratzailea (EZZLren 2.3 art.). Bigarrenik, EAEko Justizia

Auzitegi Nagusia adierazi berri dugun funtzio hori betetzen ari ez zela kritikatu zen, ardurapean zituen kontuak geroz eta gutxiago zirela azpimarratuz. Zentzu horretan, indarrean zegoen marko normatiboaren zorrotasunak, eta bereziki, galdatzen zen *summa gravaminis*-ak (600.000tik gorakoa, PZLren 477.2.2 artikulua arabera), EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari zegokion doktrinaren funtzio-bateratzailearen egikaritzea oztopatu egiten zutela nabarmendu zen. Hirugarrenik, EAEk herritarren eskubideak berme handiagoekin babesteko, bere kasazio zibila arautzeko eskumena zuela adierazi zen (EKren 149.6 art., EAEko Autonomia Estatutuaren 10.5 eta 14.1 artikulua eta K Aren 47/2004 aintzat hartuz). Laugarrenik eta aurretik adierazitako guztia kontuan izanik, legearen abiaguneak bi premisa orokorretan finkatu ziren: alde batetik, diru-zenbatekoaren betekizunaren desagerpenean, eta horrekin lotuta, bestetik, kasazio-interesaren sinplifikazioan, aurkaritzea-betekizun bakar gisa ezarriz. Beraz, errekurtsoren sarbidea erraztu egiten zen, errekurtsoa jartzeko aukera emanez, jurisprudentziarik ez zegoen kasuetan edo PAek ebazpen kontrajarriak zituztenean. Bosgarrenik, PZLren 481.1.II artikulua aplikazioa euskal zuzenbide zibilera ekarriz, kasazio autonomikoaren zioa zehaztu zen: prozesuaren objektua ebazteko aplikagarriak ziren xedapenen arau-haustea, baldin eta horiek, soil-soilik edo beste arrazoi batzuekin batera, EAEko berezko zuzenbide zibilari edo foru-zuzenbideari erreferentzia egiten bazioten. Azkenik, kasazio-interesari jartzen zitzaion arreta. Hura bigarren auzialdi edo instantzia batean bihur ez zedin eta zegokion funtzio nomofilaktikoa betetzeko, euskal legegileak kasazio-interesa eduki zezaketen kasuak modu objektiboan zehaztu zituen, hau da, kasazio-interes objektiboaren presuntzioa zer kasutan zegoen zehazten du.

Legearen lehenengo zirriborro horri begirada azkar bat emanez, 1. artikuluan legearen xedea zehazten zen, hau da, euskal kasazio-errekurtsio zibilaren arauketa. Hurrengo artikuluan, 2. artikuluan, berriz, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari kasazio-errekurtsoaz arduratzeko eskumena aitortzen zitzaion, kasazioa AGtik helarazitakoa balitz, eskumen horri ezin izango ziokeela uko egin adieraziz (PZLren 484.3 artikuluan oinarrituz). Ondorengo xedapenean, errekurtsoren zioari (euskal zuzenbidearekin lotutako arauen urraketa, horiek prozesuaren objektua ebazteko aplikagarriak izanik) eta errekurritu zitezkeen ebazpenei heltzen zitzairen (behin betiko epai zein autoak, bigarren auzialdian PAek emandakoak eta kasazio-interesa zutenak). Gainera, kasaziorako sarrera eragotzita zuten ebazpenen zerrenda bat txertatu zen⁴⁶. Bestetik, 4. artikulua kasazio-interesa arautzen zuen, hura hauteman zitezkeen lau kasu zehaztuz: (1) errekurritutako ebazpena dagokion JANaren jurisprudentzia-doktrinari kontrajartzen zaionean, (2) beste auzitegi batzuek, EA Eren sorrera baino lehenagokoek, euskal zuzenbide zibilari buruz aspaldi finkatutako eta oraindik indarrean dirauen jurisprudentziari kontrajartzen bazaio, (3) euskal zuzenbide zibilari lotutako gai bat ebazten denean eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusian horri buruzko jurisprudentziarik existitzen ez denean, ez legeari berari dagokionez, ezta eduki bera edo antzekoa duten arau zaharragoei dagokienez ere, (4) errekurtsogileak aurreko doktrina aldatu behar dela behar bezala justifikatzen duenean, araua aplikatu behar den garaiko errealitate soziala aldatu delako edo komunitate juridikoaren iritzia arauaren aplikazioari dagokionez, aldatu egin delako,

46. Hurrengoak ziren: (1) prozesuari amaiera ematen ez ziotenak, (2) izaera intzidentala dutenak (3) edo kautelazkoa eta (4) objektu bera duen ondorengo prozedura bat eragozten ez dutenak.

horren espiritu eta helburua aintzat hartuz. Azkenik, errekursoaren onarpenik eza arautzen zuen (PZLk aurreikusten zituen kasuei bost gehiago gehituz⁴⁷) eta legean aurreikusten ez zen beste guztian, PZL aplikagarri izango zela adierazten zen.

Ikusiko dugun moduan, lehen zirriborroan artikulua horietako gehientsuenak jaso ziren EKEZLren azken bertsioan. Hala ere, zenbait xedapenek ez zuten aurrera jarraitu. Zentzu horretan BJKNren txostena aztertzea beharrezkoa da, zeren lehen zirriborro horretako xedapen askoren idazkera baldintzatuta geratu baitzen Botere Judizialaren gobernuak helarazitako kritiken ondorioz. Zehazki, BJKNk honako behaketa hauek egin zituen: 1. artikulua irizpen positiboa egin zuen, PZLreri ez baitzen kontraesankorra eta ez baitzuen inongo berrikuntzarik ezartzen, 2. artikulua, berriz, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren eskumenari buruzkoak, ez zuen patu bera izan. Gobernu judizialaren aburuz, KAREN 47/2004 epaiaren hamabosgarren zuzenbide-oinarriari jarraikiz, mota horretako arauen ezarpena Estatuko legegilearen eskumen eskusiboa dela argudiatzen du, eta, beraz, xedapen hori kentzea iradokitzen du. Ildo beretik, errekursoaren arrazoiketaren edo motiboaren inguruko 3.1 artikulua idazkera nahasgarritzat jotzen du. Nabarmentzen du, xedapen horren idazkerak, euskal kasazio-errekursoaren esparruaren interpretazio zabal bat egiteko beta ematen duela, hau da, aski dela aplikagarria den arau substantibo baten urraketa euskal zuzenbide zibilaren aipamen hutsari lotzea, kasazio-interesa dagoela ulertzeko. Hori horrela, xedapen horrek interpretazio zabal bat egiteko aukera ematen duen heinean, BJKNren ustetan, artikulua horrek EAEko eskumen autonomikoaren irismenetik haraindi dagoen berrikuntza dakar, EKREN 149.1.6 artikulua araberak. Ondorioz, kasazio-interesari lotutako xedapen hori PZLren 478.1 artikulua termino berdinetan idaztea iradokitzen du, hau da, euskal zuzenbide zibilaren arau-hausteari lotuta. Hori horrela, BJKNk gogorarazten du, AGREN jurisprudentziari jarraikiz, aintzat hartu behar dela zuzenbide pribatuari lotutako gatazkak ebazteko arau autonomiko oro ez dagokiola foru-zuzenbideari edo berezko zuzenbide zibilar⁴⁸. Halaber, errekursoaren objektu izan daitezkeen ebazpenei dagokienez, 3.2 artikulua aurkaratu daitezkeen ebazpenen zerrenda oinarri juridikorik gabe zabaltzen duela nabarmentzen du. Modu horretan, autoak errekurritu ahal izateko aipamena ezabatzea iradokitzen du. Gainera, diruzenbatekoaren aurkaratze-betekizunaren helburua kasaziorako sarbidea erraztea dela kontuan izanik, ezabapen horren arrazoiak gehiago azaltzea gomendatzen du. Beste hitz batzuetan, euskal zuzenbide zibilaren berezkitasunak kontuan hartuta, ZAN neurri horren ezabaketa beharrezkotzat jotzeko arrazoiak azaldu eta zehaztu behar direla adierazten du. Ildo horretatik, zenbatekoaren betekizunaren ezabapenak

47. Zehazki: (1) errekursoa bidegabekia bada, aurkaratutako epaia ezin delako errekurritu edo/eta zuzendu ezin daitezkeen akats formalak dituelako, (2) errekursoa jartzeko idazkiak PZLn edo euskal kasazioaren legean aurreikusitako betekizunak ez dituen betetzen, (3) euskal legeak aurreikusitakoaren arabera kasazio-interesik ez dagoenean, (4) errekursoaren oinarririk eza edo funtsean berdinak diren edo objektu bereko gatazka ebatzi duten errekursoak existitzea, (5) errekurtsogileak doktrina aldatu beharra dagoela adierazten duenean eta JANeko salaren ustez beharrik ez dagoenean legean aurreikusitako kasurik ez dagoelako.

48. AGREN 2015eko martxoaren 15eko eta 2018ko irailaren 5eko autoetan oinarritzen da. Zehazki, AGK gaztelaniaz dio «las competencias de las CCAAs pueden extenderse, en mayor o menos medida, a materias que guarden relación con el Derecho privado pero que en puridad no integran su Derecho civil propio».

eta kasazio-interesaren aldeko apustuak ekar ditzaketen arriskuez ohartarazten du; izan ere, azken betekizun hori existitzen ez den kasuetan, kasazio-errekurtsoak ez du aurrera egingo, euskal kasazio-legearen xedea zapuztuz (doktrinaren funtzio bateratzailearen bitartez funtzio nomofilaktikoaren betearazpena). Azkenik, 3.2 artikulua idazkera berrikustea iradokitzen du, modu orokorrean PAei erreferentzia egiten baitie, EAEkoei berariazko erreferentziarik egin gabe. Aurreproiektuaren 4. artikuluari dagokionez, non kasazio-interesa dagoela ulertzen zen kasuak zehazten ziren, BJKNk adierazten du xedapen horrek hiru berrikuntza dakartzala. Lehenik, antzinasun-irizpidearen desagertzea (PZLren 477.3 artikuluan oinarrituz) BJKNk ontzat jotzen du eta ez dio inongo kritikarik egiten. Bigarren berrikuntzari dagokionez, kasazio-intereseko kasuetan jartzen du arreta BJKNk. Modu horretan adierazten du, kasazio-interesa dagoela aintzatestea, aurkaratutako epaia kontraesankorra denean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia sortu baino lehenagoko epaitegi zein auzitegi guztietatik helarazitako jurisprudentziari dagokionez, oso kritikagarria dela. Izan ere, BJKNren aburuz, kasu horretan kasazio-interesa dagoela onartzen bada, kasazio-interesa hautemateko kasuak zabalduko lirateke eta, ondorioz, euskal kasazioaren esparruaren zabalkundea emango litzateke, euskal zuzenbide zibilararen berezotasunek hala galdatzen dutela justifikatu gabe⁴⁹. Hirugarrenik eta azkenik, kasazio-interesa dagoela aintzatesten den 4. kasua ezabatzea iradokitzen du, hau da, errekurtso-jartzaileak aurreko doktrina aldatu beharra dagoela argudiatzen duenean, araua aplikatu behar den garaiko errealitate soziala aldatu delako edo komunitate juridikoaren iritzia arauaren aplikazioari dagokionez aldatu egin delako, horren espirtu eta helburua aintzat hartuz. Zehazki, PZLren 477.3 artikuluan oinarrituz adierazten du ezen euskal aurre-legegileak kasazio-errekurtsoa onartzea ahalbidetu nahi duela, indarrean dagoen JANeko jurisprudentzia-doktrina baketsuari aurka egiten dioten kasuetan. BJKNren aburuz, kasazio-interesaren konfigurazio horren bitartez, kasazio-errekurtsoa hirugarren instantzia edo auzialdi gisa diseinatuko litzateke, errekurtso horren funtzio nomofilaktikoa aintzat hartu gabe. Halaber, aurreproiektuaren 5. artikulua PZLren 483.2 artikuluekin erkatzen du adieraziz lehenengo eta laugarren ataletan jasotakoek ez dutela inongo berrikuntzarik ekarri, PZLk ezarritakoaren errepikapen hutsak direla azalduz. Aitzitik, bosgarren atalari dagokionez, zeinean kasazio-errekurtsoa ez onartzeko kasu berezi bat jasotzen den laugarren atalean jasotzen denarekin guztiz lotuta, BJKNk hura ezabatzea iradokitzen du. Era berean, 6. artikulua ezabapena edo birformulazioa iradokitzen du; izan ere, azaltzen du euskal kasazio zibilarren legeak ez duela PZLren xedapenak aplikagarriak direla berretsi behar eta, gainera, xedapen horrek PZLri osagarritasun-

49. Hori justifikatzeko, Botere Judizialaren gobernuak bi argudio nagusi erabiltzen ditu: alde batetik, adierazten du, kasazio-interesa dagoela ulertzeko kasuak, indarrean dagoen zuzenbide materialaren arabera zehaztu behar direla EK-k ezarritako arauak errespetatuz. Hori horrela, EKren 149.1.8 artikulutik eskumen autonomikoa eratorzen da, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari esleitzen kasazioaz arduratzeko ardura. Bestetik, BJKNk ez dio zentzurik ikusten antzinako edo iraganeko epaitegi zein auzitegiek emandako epaiak erabiltzeari jurisprudentzia-doktrinan kontraesana dagoela justifikatzeko, kasazioaren helburua segurtasun juridiko eta legearen aplikazioan berdintasuna bermatzea dela kontuan hartuta, legearen interpretazio bakan eta bateratu bat eginez. Berez, argudiatu beharreko doktrina-kontraesana dagoela arrazoitzeko, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiarena izan behar duela defendatzen du, eta ez iraganeko beste auzitegi edo epaitegi batzuenara.

izaera aitortzen diola, EKren 149.1.6 artikuluan ezarritako eskumen-banaketarekin bateragarria ez dena⁵⁰.

BJKNren txostenaren azterketari amaiera eman baino lehen, txostenari atxikitako bozka partikularrei so egin behar diegu, zehazki, euskal bokal batek sinatutakoari eta horri atxiki zitzaion kataluniar bokal batenari. Modu horretan, beste behin, Espainiako kasazio-sistemaren inguruko eztabaida juridikoa ez ezik, politikoa ere badela argi geratu zen. Bozka partikularrean, oro har, PZLk ezartzen duenetik haraindi doazen xedapenak onartzeko BJKNren jarrera itxia salatzen da, EAEn foru-zuzenbidetik erortzen diren berezitasun prozesalak arautzeko eskumena (EKren 149.1.6 eta 149.1.8) artikulua) edukirik gabe uzten dela ohartaraziz. Halaber, txosten guztian zehar erabiltzen den aginduzko tonua apaldu beharko litzatekeela adierazten da. Zehazkiago, euskal zuzenbide zibilaren berezkitasunetik erortzen diren berezitasun prozesalak justifikatuzat jotzen dira eta, beraz, 3. eta 4. artikuluetan kasazio-interestzat jotzen direnak ere bai. Horren harira, ohartarazten da BJKNk ez duela kontuan hartzen euskal zuzenbide zibilaren kasuan ohiturak eta printzipio orokorrek zuzenbidearen iturri gisa duten garrantzia, ezta auzitegiek finkatutako doktrina ere. Modu horretan, bokalek gogora ekartzen dute ezen 1876an foruak indargabetu zirenetik eta EKra arte EAEk ez zuela berezko legegintza-organorik eduki eta horrek ohitura eta usadioen kodifikazioa zaildu edo eragotzi egin zuela. Ildo horretatik, adierazten dute 4.2 artikulua, kasazio-interesa zehaztean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusia sortu baino lehenagoko auzitegi eta epaitegi historikoen eta AGren epaiei balio ematea guztiz lotuta dagoela azken gertaera horrekin. Bi bokalen aburuz, horrek ez dio eragiten JANek egin behar duen lege substantiboaren interpretazio bakar eta bateratuari, kontrara, jurisprudentzia historiko hori gal ez dadin balioa esleitzen dio. Halaber, ukatu egiten dute JANeko jurisprudentzia-doktrina baketsuari aurka egiten dioten kasuei kasaziora sarbidea onartzeak errekurso honen funtzio nomofilaktikoa aintzat ez hartzea eragiten duela. Zentzu horretan, adierazten dute funtzio horrek arau juridikoaren babesa duela xede eta ez kasazio-uzitegiaren doktrinarena, eta beraz, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ezin du arauen interpretazioaren garapena eragotzi, bereziki usadio eta tradizioekin lotutako arauei dagokienez. Horrenbestez, 4. artikulua ezabatzeak doktrinaren funtzio bateratzailea ekidingo lukeela ohartarazten dute.

3. Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzko maiatzaren 19ko 4/2022 Legearen azterketa juridiko-kritikoa. Legearen beharrezkotasuna, ezaugarri orokorrak eta xedea

3.1. Legearen beharrezkotasunaren argudiaketa

Aurrekari horiek aintzat hartuz eta aurretik deskribatutako espainiar kasazio-sistemaren testuinguruan jaiotzen da EKEZL. Sistema konplexu horretan kasazio arruntaren eta autonomikoaren —zehazki, euskal kasazio autonomikoaren— oreka eta elkarbizitza lortzeko azken saiakeratzat jo dezakegu. Onartu berri den euskal kasazioaren legea, urte hauetan guztietan ikasitakoaren emaitza da, beste era

⁵⁰. Ondoren adieraziko dugun moduan, euskal legegileak BJKNren gomendio horri jarraitu zion.

batera esanda, euskal legegileak aurretiazko kasazio-lege berezien (Galiziakoa, Aragoikoa eta Kataluniakoa), KAren 4/2004 epaiaren eta BJKNren txostenean jasotakoen ikaskuntza eta hausnarketa luzearen azken emaitza edo ondorea da. Ikaskuntza-prozesu horretan euskal legegileak ikasi du zeinen garrantzitsua den euskal lege zibilaren beharrezkotasuna justifikatzea. Dударik gabe, KAren 4/2004 epaian finkatutako doktrinak EKEZLren edukia baldintzatu du, eta horri lotuta, euskal legegilearen ahalegin berezia antzematen dugu —batzuetan gehiegizkoa eta neurrigabekoa dena— euskal zuzenbide substantiboaren berezkotasuna egiaztatzeko, zeinak PZLn xedatzen den bestelako legeria prozesala arautzea justifikatzen duen. Berezik, ZAren lehenengo atalean hautematen dugu esfortzu hori, euskal zuzenbide zibilaren berezkotasunak justifikatzeko xedapen arautzaileen hedaduraren hirukoitza erabiltzen baitu euskal legegileak zeregin horretarako.

Hori horrela, euskal legegileak bere argudiaketa EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak kasazio-errekurtsoaz arduratzeko ahalmena aitortzen dioten oinarri juridikoak aipatuz hasten du: EKren 152. artikulua, BJLOren 73. artikulua, EAEko AEn 14.1.a artikulua eta EZZLren 2.3 artikulua⁵¹. Zentzu horretan, azpimarratzen da EKEZL onartu arte euskal kasazio zibilaren arauketa PLZren eraentza juridikoaren (477-493. artikulua) arabera ordenantzen zela eta arauketa horrek ez duela bere funtzio bete⁵², geroz eta gutxiago izanik EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzen dituen kasuak. Azken errealitate horren arrazoiak askotarikoak direla aipatzen du euskal legegileak, baina arrazoi bat, kausa nagusia dena, identifikatzen du: PZLren xedapenak euskal zuzenbide zibilaren benetako premiei egokitzeko ezintasuna. Hala ere, euskal legegileak ez du ziurtasunik agertzen beharrian horiek euskal zuzenbidearen berezkotasunekin (inguruabarrarekin lotutakoak eta substantiboak) lotzerakoan. Hain zuzen ere, berezkotasun horiek dira euskal ordenamendua beste ordenamendu batzuetatik, eta bereziki kasazio arruntaren eraentzatik, bereiztea eragiten dutenak. Zentzu horretan, euskal legegileak, esparru honetan KAK ezarri dituen irizpideei men eginez, sei berezkotasun identifikatzen ditu, bata zehatza eta beste bostak euskal zuzenbide zibilari erreferentzia egiten diotenak⁵³. Horien azterketa kritikoa errazteko helburuarekin —legegileak egiten ez duen arren— zenbatu egingo ditugu: (1) euskal zuzenbide zibilean oso errotuta dauden eta gatazka sozial handiak eragiten dituzten gaiak, baina balio ekonomiko edo diru-zenbateko txikikoak⁵⁴, (2) euskal zuzenbide zibilaren idatzizko garapen-maila eta kodetze-maila txikiagoa, ez bakarrik zuzenbide erkideari dagokionez, baita beste zuzenbide

51. Azken xedapen hori azterten du, EZZLren azterketa jurisdikzionala eginez, Ordeñanak (2018).

52. Zehazki, euskal legegileak dio: «Lege-aurreikuspen horiek orain arte ez dute eman nahi bezalako emaitzarik, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako ebatzpenen kopurua urriegia da euskal zuzenbide zibila behar adina erabaki judizialez hornitzeko, alegia, doktrina bateratzeko eman zaion eginkizuna osorik bete ahal izateko. Eta hori gertatzen da ebatzen diren auziak, hainbat arrazoiengatik, gutxi direlako, eta denboran zehar kopuru hori gutxituz joan da».

53. Zentzu horretan, ikus, ZAren VI. atala.

54. Euskal legegileak adierazten du, beste foru-zuzenbide batzuetan gertatu den bezala, euskal zuzenbide zibilaren berezko gai askoren diru-zenbatekoa eskasa dela eta ohartarazten du *summa gravaminis* irizpidearen aplikazioak (PZLren 477.2.2 art.) euskal gai askori kasaziora sartzeko atea ixten diela, zenbatekoaren irizpidea ez dutelako betetzen eta, gainera, kasu askotan, besteak beste familiako zuzenbidearekin lotutakoekin, gaiaren irizpidea ezin zaielako aplikatu.

autonomiko batzuekiko ere⁵⁵, (3) ohiturarekiko mendekotasuna zuzenbide-iturri gisa⁵⁶, (4) jurisprudentziaren garrantzia, bai historikoa bai egungoa, arau idatzien eta, batez ere, ohiturazkoen «katalizatzaile nagusi, eguneratze-bide eta adierazgarri gisa»⁵⁷, (5) JANren sorrera berantiarra eta horren efektuak⁵⁸, eta (6) EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren egoera prozesal berezia⁵⁹.

Azterketa juridiko objektiboari amaiera emanik eta ikuskera subjektibotik, euskal legegileak adierazitako sei berezkotasunak egiazkotzat joz, gure uste apalean, horien sistematizazioa ez da egokia. Euskal zuzenbidearen berezkotasuna, eta beraz, tratamendu prozesal berezi baten beharrezkotasuna justifikatzen duten arrazoiak askotarikoak direla dio euskal legegileak; gure ustez, ordea, aipatutako sei horiek hirutara murrizten dira: kasu askoren balio ekonomiko edo zenbateko txikia, euskal zuzenbide substantiboaren idatzizko garapen-maila txikia eta horren ondoriozko ohituraren mendekotasun handia, eta, azkenik, jurisprudentziaren eta haren funtzionamendu bereziaren garrantzia (egun betetzen duen funtzioa, bere ibilbide historikoa eta hura ematen duen jurisdikzio-organoa kontuan hartuta).

55. Euskal legegileak foru-zuzenbidearen sustraitzea goraiatzeko du, ez bakarrik esparru pribatuan baita arlo publikoan ere, eta beraz, ondare historiko ukaezin bat existitzen dela dio, zeinak garapen- eta kodetze-maila apalagoa izan duen bereziki foru-abolizioaren eraginez, eta aurrerago kodetze-prozesu hori ez delako inoiz aurrera eramanez, ez errepublikaren garaian ez ondoren, beste foru-ordenamendu batzuetan lehenago edo geroago egin zen bezala.

56. ZAn gipuzkoar zuzenbidea adibidetzat hartzen da, zeinak ez duen idatziz jasotako arau zibilik izan, baina tradizio luzeko ohitura eta usadioz osatzen den. Halaber, beste eremu batzuetako usadio edo ohituretan oinarritzen diren arauak aipatzen ditu, besteak beste, familia-zuzenbidearekin, landa-errentamenduekin, zortasunekin edo sozietate tradizionalarekin (kofradiak, mutualitateak, ermandadeak...) lotutakoak, idatziz jaso baino lehen ohiturak izan direla azpimarratuz.

57. Berezkotasun hori aurreko bien (idatzizko garapen eskasa eta ohiturarekiko mendekotasuna) ondorioztat jotzen du euskal legegileak. Zentzu horretan, jurisprudentziaren garrantzia foru-errenta eguneratzeko konstituzio-mandatuarekin lotzen du, eta gainera, euskal zuzenbide zibilarren jurisprudentziaren konfigurazio desberdina (berezkoa eta bereizgarria) azpimarratzen du. Ildo horretan, EZZLk jurisprudentziagatik zer ulertu behar dugun gogora ekartzen du. Hitzez hitz, EZZLren 2.2 artikulua arabera, «Euskal Zuzenbide Zibilarren ondoreetarako, jurisprudentziatzat ulertuko da Euskal Herrian jurisdikzioa duten epaile eta auzitegiek zuzenbide horren aplikazioan emandako ebazpen arrazoituek ezartzen duten doktrina». Jurisprudentziaren kontzeptu hori sakonki ikertzen eta azaltzen du Ordeñanak (2018).

58. Euskal legegileak gogorarazten du kasazioa 1985ean BJLOn aurreikusitako zela eta 1989 urtera arte ez zela EAEko Justizia Auzitegi Nagusia sortu. Literalki dio: «Kontuan hartuta bai jurisprudentziak euskal zuzenbide zibilarren kasuan bereziki jokatu behar duen berebiziko papera, bai jurisprudentziak zuzenbide horretan daukan esanahi zabala bai eta horregatik jurisprudentzia bateratzeko funtzioak duen aparteko garrantzia ere, deigarria da, nahiz eta arrazoi historikoengatik erraz azaltzeko modukoa, foru-kasazioko errekurtsioa espezifikoki aurreikusita ez egotea Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 73.1.a artikulua indarrean sartu zen arte eta doktrina bateratzeko ardura daukan auzitegia bera, Euskadiko Auzitegi Nagusia alegia, sortu gabe egotea duela gutxira arte, hots, 1989ra arte».

59. Zentzu horretan euskal legegileak azaltzen du AGk zuzenbide zibil erkidearen doktrina bateratzeko dituen tresna edo bitarteko prozesalak ez direla berdinak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskal zuzenbide zibilarren doktrina bateratzeko izan dituenarekin erkatuta. Zehazki, JANen eskumenak egikaritzeko araudia osatugabe dagoela azpimarratzen du, 16. XAk ezarritako erregimen iragankorrari erreferentzia eginez.

3.2. Ezaugarri eta aspektu orokorrak

Lehen aipatu dugunez, EKEZL ikaskuntza eta hausnarketa luze baten emaitza da. Ikaskuntza-legetzat jotzeaz gain, euskal zuzenbide zibilaren berezkitasunak justifikatzeko egiten duen ahalegin handia —eta askotan neurrigabea— kontuan hartuta justifikazio-legetzat ere jo dezakegu. Legearen hedadurari dagokionez, lege laburra dela baieztatu dezakegu, ZArekin batera bost artikuluz, hiru XIz eta bi XAz baitago osatuta. Beraz, zentzu horretan, ikaskuntza- eta justifikazio-legetzat gain, gutxienekoak ezartzen dituen legetzat kalifika genezake, euskal zuzenbide zibilaren beharriari erantzuteko beharrezkoak diren elementuak bakarrik xedatzen baititu. Are gehiago, PZLren xedapenek aplikagarriak izaten jarraitzen dutenez —ez lege honen aginduz, baizik eta arau prozesal orokor gisa (ZAKo VII. atala)—, «nahita osatu gabeko» legea dela esan dezakegu. Ildo horri jarraituz, azpimarratu behar da EKEZLk alde batera utzi duela, BJKNren iradokizunez, bere aurreproiektua osatzen zuen azken xedapena (6.), esanbidez aipatzen baitzuen EKEZL-PZL lotura.

EKEZLren ezaugarri edo aspektu orokorrekin amaitzeko, legaren aplikazio-eremuari helduko diogu. 2.1 artikulua arabera⁶⁰ EKEZL kasazio-errekurtsoei aplikatuko zaie, indarrean dagoen araudiaren arabera, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokionean haien ardura. Xedapen hori kasazio-errekurtsoaren gaineko euskal eskumenaren berrespena besterik ez da (PZLren 484.3 artikulua errepikapen hutsa), bide batez, gogoratzen duela lege hau ezin izango dela erabili EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Penal eta Zibileko Salak AGk igortzen dizkion kasazio-errekurtsoez arduratzeari uko egiteko (EKEZLren 2.2 art.).

3.3. Xedea eta euskal kasazio-errekurtso zibilaren zioa

EKEZLren xedea edo helburua lehenengo xedapenean zehazten da: «euskal zuzenbide zibilaren arloko kasazio-errekurtsoa arautzea». Jomuga hori, arautzen den kasazio-errekurtsoaren helburuarekin estuki korapilatuta dago. Adierazi dugunez, espainiar kasazio-sistemaren euskarria kasazio arrunta denez, kasazio autonomikoak orokorrean eta euskal kasazioak bereziki, kasazio arruntarekin funtzio edo xedea partekatzen du. Aurretiaz azaldu dugunez, eskubide substantibo pribatu desberdinei aplikatutako erakunde berdinak dira eta bi dira erakunde juridiko honi tradizionalki esleitutako helburuak edo xedeak: alde batetik, *ius constitutionis*-a edo interes publikoaren defentsa, ordenamendu juridikoaren aplikazio egokia (funtzio nomofilaktikoa) eta jurisprudentziaren uniformetasuna bermatzen delarik (funtzio bateratzailea), eta, bestetik, *ius litigatoris*-a, hau da, subjektu pribatuen interes edo eskubideen babes judiziala arau juridikoaren aplikazio ezegokiaren aurrean, aurkaratutako ebazpena deuseztatuz eta gatazka juridiko konkretua ebaztiz.

Inguruabar horretan, gure ordenamendu juridikoan kasazio-errekurtso arruntaren zio bakarrari erreparatzen badiogu, «prozesuaren objektu diren arazoak ebazteko arau aplikagarriak haustea» (PZLren 477.1 art.) eta euskal kasazioan «prozesuaren

60. Zehazki artikulua dio: «Lege hau aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak, Botere Judizialaren Lege Organikoak, Prozedura Zibilaren Legeak edo lege-mailako beste edozein arau prozesalek arlo zibilean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibil eta Penaleko Salaren ardurapean uzten dituzten kasazio-errekurtsoei».

objektu diren gaiak ebazteko aplikatu beharreko Euskal Autonomia Erkidegoko berezko foru-zuzenbide zibil edo bereziko arauen urraketa» argi islatzen da aurretik aipatutako funtzio publikoan: zuzenbide objektiboaren —estatukoza zein EAEkoa— babesa (*ius constitutionis*-a). Era berean, estatuko kasazioan zein euskal kasazioan, errekurso honen funtzio pribatua (*ius litigatoris*) identifika dezakegu; izan ere, kasazioaz arduratzeko eskumena dutenek (estatuaren esparruan AGk eta EAEn JANek) ez dute ofizios jarduten, baizik eta justiziapekoek errekursoa jartzen dutenean, babes judizial eraginkorrerako eskubidea egikaritzuz. Modu berean, adierazitako jurisdikzio-organoez kasazioa onartzen badute, errekurritutako ebazpena deuseztatuko dute justiziapeko konkretu batzuei eragiten dien kasu konkretua ebatziz. Euskal kasazio-errekursoaren zio bakarrari sakonago erreparatuz gero, bi elementu gehiago aztertzei beharra sortzen da. Lehenik, EAEko berezko foru-zuzenbide zibil edo berezia ezagutzea nahitaezkoa da, bereziki, beraren hedadura eta irismena zein den; bestetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak kasazioa ebaztearekin batera, beste eskubide material batzuek, baita prozesalez ere, arduratzeko duen aukera aztertzea beharrezkoa da. Jarraian bi kontu horiek aztertuko ditugu.

Segurtasun juridikoa bermatzeko asmoz, euskal zuzenbide zibila oraindik ere erabat kodetu gabe dagoela kontuan hartuta (ZAREN III. atala) eta EZZLren edukira soilik mugatzen duen interpretazioa saihesteko, 3.2 artikulua berrikuntza bat dakar⁶¹ foru-zuzenbide zibiltzat zer ulertu behar den garatu eta zehazten baitu. Zehazki, xedapen horrek dio EAEko berezko foru-zuzenbide zibil eta berezitzat⁶² osagarriak diren —nahiz eta legegileak aldizkakotzat jo («edo»)— bi elementu identifikatzen ditu: lehenik, EAEko Autonomia Estatuaren 10.5 artikuluan⁶³ aitortutako eskumena baliatuz emandako arau oro, eta, beste alde batetik, «espresuki hala izan gabe, jurisprudentzia zibilak euskal zuzenbide zibilaren partetzat hartzen duena, bai zuzenbide horren iturrietatik datorrelako bai haren edukia zuzenbide horrek berezkoa duelako». Ildo horretatik eta euskal zuzenbide zibilaren hedadura zehazteko, beharrezkoa da EAEko Autonomia Estatuaren 10.5 artikuluan xedatzen den «gordetzeko, aldatzeko eta garatzeko» eskumenaren irismena zehaztea. Gordetzeko eta aldatzeko gaitasunen inguruan ez da eztabaida esanguratsurik sortu, aldiz, zuzenbide autonomiko zibila «garatzeko» eskumenak liskar sutsuak piztu ditu doktrinan. Zuzenbide zibileko adituek⁶⁴ eskumen horren irismena zehazteko EKren 149.1.8 artikulura jotzen dute⁶⁵, adieraziz eskumen-titulu horrek arau orokor bat jasotzen duela (legeria zibila estatuaren eskumen eskusiboa da), salbuespen bat (foru-zuzenbide zibila edo zuzenbide zibil berezia duten AE-en

61. Gogora dezagun aurreproiektuan ez zela euskal zuzenbide zibiltzat zer ulertu behar zen zehazten, eta ondorioz, xedapen horren integrazioa BJKNk igorritako kritiken emaitza dela uler dezakegu. Artikulu horren garrantzia azpimarratzen du Lorca-k (2022, 28. or.) EAEko kasazio zibilaren ibilbidea ahalbidetzen duen nerbiotzat kalifikatuz.

62. Ohar gaitezen euskal legegileak euskal zuzenbide zibila identifikatzeko hitz guztiak erabiltzen dituela (foru, berezi eta berezko), zalantzarik gabe, horren euskal kasazioaren aplikazio-esparrua ahalik eta gehien zabaltzeko.

63. Dakigunez, xedapen horrek EAeri eskumen eskusiboa aitortzen dio Herrialde Historikoen foru-zuzenbide zibil eta berezia —idatzizkoa nahiz ohituran oinarritutakoa— gorde, aldatu eta garatzeko, bai eta horien aplikazio-eremua finkatzeko ere.

64. Askoren artean, ikus Díez-Picazo (1989, 17. or.).

65. Xedapen horren idazkerak eragiten dituen interpretazio-zailtasunak azpimarratzen dituzte Lasartek (1980, 45-46. or.) eta Laguna-k (1994).

aldekoa) eta itxiera-arau bat, zeinak estatuari gordetzen zaizkion gaien zerrenda bat ezartzen duen. Artikulu horren interpretazioan, hiru joera bereizten dira: batetik, tesi erredukzionista edo mugatzaileari jarraitzen diotenak, zeinaren arabera autonomia-erkidegoek EK indarrean sartu zenean foru-zuzenbide zibil edo bereziei lotutako instituzio juridikoak soilik gara ditzaketen⁶⁶; bestetik, tesi maximalista edo muturrekoaren defendatzaileak⁶⁷, EK-k itxiera-arauan berariaz adierazten dituen gaiak edo estatuarentzat gordetzen dituenak salbu, gainerakoak autonomia-erkidegoen arabera antola daitezkeela pentsatzen dute, eta, azkenik, erdibideko edo posizio foralistaren aldekoak daude, zeinek, ikuspegi historikoarekin bat eginik, egungo erakunde zibil autonomikoak garatzeko aukera aitortzen duten, betiere, jatorrizko foru-zuzenbidearekin lotura badute⁶⁸. Azkeneko tesi hori da hain zuzen ere, KAK jarraitu duena. Laburbilduz, eta bereziki, maiatzaren 12ko KAREN 88/1993 epaian⁶⁹ EKren interpretatzaile gorenak dio «garatzeko» eskumena alde aurretik araututa dagoen gaiarekiko duen harreman edo loturak baldintzatuta geratzen dela. Hala ere, KAK ez ditu argitzen zeintzuk diren arau berriaren eta zaharraren arteko lotura hori frogatzeko irizpideak. Modu horretan, garatzeko eskumena kasu bakoitzean KAK egiten duen interpretazioaren arabera izango da, eta, beraz, zuzenbide zibil autonomikoaren garapena kasuan kasuko KAREN interpretazio zehatzak baldintzatuko du⁷⁰.

Hala ere, zenbait kontu argi daude. Alde batetik, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibil autonomikoaren arauak eman ditzakete, betiere, dagokion autonomia-estatutuak hori egiteko ahalmena aitortzen badie⁷¹, eta, bestetik, zuzenbide zibil autonomikoaren irismenari buruzko eztabaidari dagokionez, egungo jurisprudentziak zuzenbide pribatua (non *a priori* merkataritza-zuzenbidea kokatuko litzatekeen) eta foru-zuzenbide zibila edo zuzenbide berezia bereizten ditu. Azken hori, legegintza autonomikotik eratorritzen da, EKren 149.1.8 artikulua esleitzen dion eskumenaren egikaritzatik. Autonomia-erkidegoek eskumen horren egikaritzan ematen dituzten arauak estatuak ematen dituen arauen maila eta indar bera dute, haien

66. Tesi horrek EKren 149.1.8 artikulua inguruko interpretazioak sakonago aztertzeko ikus Arce (1987, 99. or. eta hur.). Posizio hori lehenetsitako muturrekotzat jotzen du («la extrema por defecto») Montero-k (1989).

67. Tesi hori «autonomista» izenez ere ezagutzen da. Askoren artean, tesi horren defendatzailea da Roca i Trias (1983). Tesi hori gehiegikeriazko muturrekotzat («la extrema por exceso») jotzen du Montero-k (1989).

68. Tesi hori azaltzen dute, askoren artean, Delgado Echevarría-k (1979) eta Bercovitz-ek (1993).

69. Ondoren, ebazpen horretan finkatu zen doktrina, maiatzaren 6ko KAREN 156/1993 epaiak berretsi zuen. KAK bi epai horietan, modu orokorrean bada ere, garatzeko eskumenaren irismena zehaztu dute. Lehenengo epaiak (maiatzaren 12ko KAREN 88/1993) Aragoiko Seme-alaba Adoptatuak Parekatzeari buruzko apirilaren 25eko 3/1988 Legearen konstituzionaltasuna berretsi zuen. Lege horren konpilazioak ez zuen erakunde hori esanbidez aipatzen, filiazioa modu orokorrean baizik. Egoera horretan, KAK adierazi zuen foru-eskubideak edo bereziak garatzeko eskumena ez dela hertsiki lotu behar konpilazioetan xedatzen dena edo eta ordenamendu autonomikoaren beste arauetan adierazten dena; izan ere, autonomia-erkidegoei Konpilazioan aurretiaz araututako instituzioekin harremana duten beste batzuk ordenatu edo arautzeko ahalmena aitortzen zaie edukiak eguneratzeko edo berritzeko, foru-zuzenbidearen printzipio informatzaileen berezotasunei jarraituz. Beraz, garatzeko eskumena, alde aurretik arautu den gaiarekiko duen loturaren mende geratzen da. Epai horietan ezarritako jurisprudentzia-doktrina xehetasun eta zorrotasun handiarekin aztertzen dute Zabalok (1993) eta Coca-k (1944).

70. Gure iritzieren defentsan, Asua, Gil eta Hualde (1994).

71. Dakigun moduan, EAERen kasuan, bere autonomia-estatutuaren 10.5 artikuluan jasotzen da.

ezberdintasuna ez baita arauen hierarkian antzematen, baizik eta eskuduntzen eremuan. Hain zuzen ere, KZren 14.1 artikulua araberaren auzotartasun zibila da, eta ez lurraldea, zuzenbide zibil autonomikoaren edo erkidearen aplikazioa erabakitzen duena. Nolanahi ere, KZren aplikazioa osagarria da, (EKren 149.3 art. eta KZren 13.2 art.) eta, egitura horretan, izaera desberdineko arau zibilak (erkideak eta autonomikoak) eta auzotartasun zibil desberdinak batera egotearen ondorioz sortzen diren gatazken ebazpena estatuari dagokio (KZren 14. eta 16. artikulua).

Bigarrenik, EKEZLren 3.2 artikulua bigarren atalari so eginez, euskal legegileak euskal zuzenbide zibilean konstituzio aurreko zuzenbidea txertatu nahi duela ulertzen dugu, ohituretatik edo haren organo legegileetatik datorrena eta euskal zuzenbide zibil tradizionalari lotutako erakunde propioei buruzkoa. Edozein kasutan, arau horiek indarrean dagoen legeria errespetatu beharko dute, eta, bereziki, estatutuak eskumen eskusiboa gordetzen duen gai substantiboaren gaineko eremua (EKren 149.1.8 art.).

Laburbilduz, eta EKEZLren 3.2 artikulua bi elementuak aztertu ostean, baieztatu dezakegu deskribatu berri dugun egoeran, eta bereziki, KAK interpretazio konkretuak eta puntualak egiteko duen ahalmena kontuan hartuta —arau autonomiko berrien eta zaharren arteko loturari dagokionez—, euskal legegileak saiakera egin arren, euskal zuzenbide zibilaren muga lausoak argitzea ez duela lortu.

4. Euskal Kasazio-Errekurtso Zibilari buruzko maiatzaren 19ko 4/2022 Legearen giltzarria: kasazio-interesa derrigorrezko betekizun bakantzat ezartzea

Lehenago aurreratu dugun moduan, EKEZLren berrikuntza nagusia edo giltzarria kasaziora sartzeko diru-zenbatekoaren betekizuna desagertzea eta kasazio-interesa betekizun bakantzat ezartzea da, haren esparrua zabalduz. Euskal legegileak bi premisa horiek orokortzat, beharrezkotzat eta elkarren osagarritzat jotzen ditu. Zentzu horretan, adierazten du kasazio-interesaren bidearen zabalitzea eta argitzea hori beharrezkoa dela diru-zenbatekoaren arabera sarbidea ezabatu ahal izateko. Izan ere, «kasazio-interesaren bidezko sarbidea nahikoa zabala ez bada, gerta liteke *summa gravaminis* delakoa ezabatzea kasaziora iristeko muga bat kentzea baino, kasaziorako sarbide bat ezabatzearen parekoa izatea, eta horrek kasaziora irits daitezkeen ebazpenen kopurua are gehiago murriztea ekar lezake, handitu beharrean, legearen izateko arrazoa bera zalantzan jarriz» (ZAre II. atala)⁷².

Kasazioaren sarbidean, kataluniar kasazio-legea eredutzat hartuz, diru-zenbatekoaren betekizuna kentzea txalotzen dugu⁷³; izan ere, betekizun horrek auzi batzuk kasaziora iristea eragozten zuen balio ekonomiko txikia izateagatik edo kuantifikaezinak izateagatik, familia-zuzenbidearen arloan askotan gertatzen den bezala, euskal zuzenbide zibila interpretatzeko duten kasazio-interesari eragotzi gabe. Doktrinan argudio anitz aurki daitezke gure iritzia babesten dutenak: auzien garrantzia ez da kasu guztietan zenbatekoaren arabera⁷⁴; errekurtsuaren izaerari eta xedeari kontrajartzen zaio (jurisprudenziaren sorrera eta legearen

72. Gogora dezagun, BJKNren txostenean diru-zenbatekoaren ezabapenak zenbait gai kasazio-errekurtsotik at geratzearen arriskuaz ohartarazten zuela.

73. Aldez aurretik, galiziar eta kataluniar legeek ere betekizun horren ezabapena burutu zuten.

74. Askoren artean, iritzi horren aldekoa da Rodríguez (1990, 46).

aplikazio uniformeak)⁷⁵; babes judizial eraginkorrerako eskubidea urratzen du, bereziki herritarren defentsa-eskubidea eta berdintasun-eskubidea; izan ere, botere ekonomiko handiagoa duten justiziapekoek (kantitate neurrigabe horietako gatazka pribatuaren protagonistak direnak) tratu mesedegarriagoa ematen die⁷⁶ eta, azkenik, betekizun horrek kasazioaren sarbidean oztopo gisa jarduten duela pentsatzen dutenen artean ia ahobatezko onarpena dago⁷⁷.

Hori horrela, zenbatekoaren betekizuna ezabatzean, euskal legegileak euskal zuzenbide zibilaren funtzio nomofilaktikoa bermatzeko asmoz, kasazio-interesa ezartzen du errekurritzeko betekizun bakartzat. Zehazki, kasazio-interesa lau egoerarekin identifikatzen du (EKEZLren 4. art.): (1) errekurritutako ebazpena EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatuta emandako jurisprudentzia-doktrinaren aurkakoa denean⁷⁸; (2) errekurritutako ebazpena oraindik indarrean egon litekeen doktrina historikoaren kontrakoa denean, doktrina hori EAeko Justizia Auzitegi Nagusia sortu eta funtzionatzen hasi aurretik ezarri bazen, lurralde historikoen berezko foru-zuzenbide zibileko doktrina bateratzeko eginkizuna zuten auzitegi guztiengandik⁷⁹; (3) errekurritutako ebazpenak euskal zuzenbide zibilaren arauen mendeko auzi bat ebazten duenean eta horren gainean EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia-doktrinarik ez dagoenean, ez legeari berari dagokionez, ezta eduki bera edo antzekoa duten arau zaharragoek dagokienez ere⁸⁰, (4) errekurtsogileak behar bezala justifikatzen duenean planteatutako gatazka juridikorako lehendik ezarritako doktrina aldatu beharra dagoela, aipatutako araua aplikatu beharreko garaiko testuingurua edo errealtate soziala aldatu delako, edo komunitate juridikoaren iritzia arau horren aplikazioaren inguruan aldatu egin delako, horrek jarraitzen duen espiritu eta helburua aintzat hartuz⁸¹.

75. Zentzu horretan, Bonet (1993).

76. Hori deritzo Iriartek (2014).

77. Zentzu horretan, bereziki, kasazio-errekurtsuak murrizteko helburuarekin, modu arbitrarioan gertatu den diru-zenbatekoaren gehikuntza gaitzesten du, zorroztasun handiz, Iriartek (2014).

78. Kasu hori, PZLren 477.3 artikulua dioena autonomia-erkidegoaren esparruan aplikatetik dator.

79. Seguruenik, BJKNk igorritako kritikari aurre egiteko (kasazio-errekurtsuaren aplikazio-eremuaren hedapena, kasazio-interesa duten kasuak zabalduz), euskal zuzenbide zibilaren berezkitasuntzat jotzen da EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren sorrera berantiarra, eta doktrinaren bateratze- eta interpretazio-zereginetan duen garrantzia kontuan izanda, haren beharra azpimarratzen da, funtzio horiek aldeztu aurretik bete zituzten auzitegiek emandako epaiak kontuan hartu behar direla adieraziz, bereziki AGrena (ZAren I. atala). Ildo horri jarraituz, Lorca-k (2022, 8. or.) gaztelaniaz dio: «El legislador de la ley 4/2022 por la que se regula el recurso de casación civil parece hallarse convencido de que el Tribunal Supremo en su devenir histórico ha hecho uso de un préstamo o empréstito casacional en el ámbito del derecho civil vasco que ahora con la ley 4/2002 por la que se regula el recurso de casación civil vasco se devuelve y restituye al ámbito de conocimiento del Tribunal Superior de Justicia vasco».

80. Gure uste apalean, hipotesi horretan, EKEZLren 4. artikulua berariaz adierazten ez duen arren (nahiz eta ZAren II. atalean erreferentzia egiten dion), PAek ebazpen kontrajarriak eman dituzten kasua gehitu beharko litzateke, nahiz eta egia izan aurretiko hipotesiak (EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziarik eza) kasu hori barne hartzen duela.

81. Azken kasu hori, ZAren VI. atalean adierazten den bezala, ACARCIPek ere onartzen du, AGrekiko kasazio-interesa deskribatzen duenean. Euskal legegileak —seguruenik, BJKNk bere txostenean adierazitako kritikei aurre egiteko— kasazio-interesaren ikuskera zabalarekin lotzen du, euskal zuzenbidearen berezko berezitasunekin (bai bere erakunde espezifikoen ikuspegiak, bai zuzenbide horren garapen-egoera zehatzagatik) koherentea dena. Hori horrela, KZren 3. artikuluan adierazitako interpretazio-irizpideak garrantzi berezia hartzean dute, arau idatziak eta, bereziki, idatzi gabekoak egokitzeko mekanismo gisa jardun baitezakete. Horrenbestez, EKEZLren 4.4 artikulua «berariaz

Guztiarekin, xedapen honen azterketarekin amaitzeko, ulertzen dugu euskal legegileak ZAN egindako interpretazioarekin bat eginik, euskal zuzenbide zibilaren berezotasunarekin guztiz lotuta dagoela errekurritutako ebazpena EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurreko auzitegien jurisprudentziaren aurka egitearen kasua, eta bereziki AGk EAEko Justizia Auzitegi Nagusia sortu baino lehenagoko doktrinari aurka egitea, aintzat hartzea (EKKLren 4.2 artikulua). Ildo horretatik, argitu behar da, beharrezkoa dela aurretzeko jurisprudentzia hori, oraindik ere, indarrean egotea, kontrako kasuan, kasazioak ez bailuke erabilgarritasunik izango. Oro har, betetzat jotzen dugu kasazio-interesa «sinplifikatzeko, zehazteko eta argitzeko helburua» (ZAre II. atala), eta, bereziki interes hori objektibatzeko saiakera txalotzen dugu, zeren JANak onarpen-autoan egin beharreko justifikazioa asko erraztuko baitu.

5. Euskal kasazio-errekurtsoaren objektu izan daitezkeen ebazpenak

EKZLren 3. artikuluan kasazio-errekurtsoa aurkez dakiekeen ebazpenak adierazten dira bi zentzutari: batetik, zentzu positiboan, kasazio-errekurtsoa jarri ahalko zaien ebazpenei egiten die erreferentzia (EKZLren 3.3 art.), eta bestetik, adiera negatiboarekin, kasazio-errekurtsoa jarri ezin zaien ebazpenak adierazten ditu (EKZLren 3.4 art.).

Lehenengoei dagokienez, 3.3 artikulua PAek bigarren auzialdian emandako epaiak eta auzitegi horiek apelazioan emandako eduki substantiboko behin betiko autoak aipatzen ditu, betiere ebazpen horiek kasazio-interesa badute. Xedapen horri bi ñabardura egin diezazkiokegu: lehenik eta behin, BJKNren txosteneko gomendioei entzungor eginez, artikulua ez du zehazten epai eta auto horiek EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandakoak izan behar direnik (BJLOren 73.1 artikuluarik eta PZLren 478.1. II artikuluarik jarraituz). EKEZLren 2. XIn⁸², ordea, bai zehazten du PA-ak autonomia-erkidegoan egoitza dutenak baino ez direla izango. Bigarrenik, EKZLren 3.4 artikulurik dagokionez, xedapen horren hedadura laburrak gure arreta erakarri du ZAN, IV. atalean, gai honi eskaintzen zaion hedadura zabalarekin erkatzen badugu, eta batez ere, autoen aurkaratzeari dedikatzen zaiona kontuan izanik —seguruenik, BJKNren iradokizunei jarraikiz—. Zentzu horretan, gogora ekarri behar dugu PZLk epaien aurkaratzea bakarrik aurreikusten duela eta ez autoena (PZLren

lotzen ditu kasazio-interesaren araberako onarpen-irizpidea eta aplikazio-aldiko gizarte-errealitatearen bilakaerak eskatzen duen doktrina-aldaketaren justifikazioa» (ZAre IV. atala). Zentzu horretan, euskal legegileak nabarmentzen du «kasazio-errekurtsoak berezkoa duen funtzio nomofilaktikoa arauaren beraren defentsari datzekiola, eta ez kasazio-uzitegiak arauari buruz duen doktrinaren defentsari», gaineratuz ezen, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko epaile eta auzitegien ebazpenetatik datorren doktrina bateratzeko duen funtzioak, euskal zuzenbide zibilaren interpretazioa hobetzeko eta manuak integratzeko zereginari dagokionez (Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko 5/2015 Legearen 2. artikulua), ez duela «oztopatu behar interpretazio horrek izan dezakeen bilakaera eta, horren bidez, arauak berak izan dezakeena, aurretiaz auzitegiak berak ebazitako doktrinara kateatuz». Beraz, laburbilduz, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari berariazko gaitasuna aintzatesten zaio bere interpretazio propioa berrikusteko, gizartearen bilakaera kontuan hartuta, baina gaitasun horri muga bat esleitzen zaio: ez da kasaziorik irekiko «kasu zehatza, egitateak edo frogaren balorazioa berrikusteko».

82. Zehazki, dio: «Botere Judizialaren Lege Organikoak eta Prozedura Zibilaren Legeak besterik xedatzen ez duten bitartean, lege honen 3.3 artikulua interpretatuko da aipatutako lege organikoan indarrean dagoen 73.1.a artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik eta, horren arabera, lege honetan aipatzen diren probintzia-uzitegiak autonomia-erkidegoan egoitza dutenak baino ez dira izango».

477.2 art.). Hori horrela, euskal legegileak kasazio-errekurtsoaren xedea auto jakin batzuetara zabaltzea lege honen beste «berritasun bat» dela adierazten du. Zentzu horretan argitzen du horrek «desberdintasun formal» bat dakarrela PZLn, *lege data*, ezartzen den kasazio-errekurtsoaren araubide orokorrarekiko, bereziki JANek egun ebatz ditzakeen kasazioei dagokienez. Hala ere, euskal legegileak azpimarratzen du ondorio praktikoei erreparatzen badiegu, JANek AGk dituen benetako eskumenekin antzekotasun handiak gordetzen dituela⁸³. Ildo beretik, lege berriak ezarritako eraentzaren arabera errekurritu daitezkeen autoen adibideak ematen ditu⁸⁴, aldi berean, horiei kasaziorako sarbidea ahalbidetzeak duen garrantzia azpimarratzen du, euskal zuzenbide zibilaren arauen interpretaziorako garrantzitsuak izan daitezkeen kontu substantiboak jorratzen dituztelako edo/eta kasazioaren bitartez berrikusten ez badira, modu berean, horiekin lotutako aspektu prozesalen berrikusketa, ezin izango delako arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoren bidez egin⁸⁵. Ildo horretatik, euskal zuzenbide zibilaren arau substantiboak aplikatuz ebatzi behar diren gai askoren balio ekonomiko eskasa edo kalkulazina onartzen da. Horrek, *summa gravaminis* betekizunaren desagertzea bultzatzeaz gain, arlo prozesalean zeharkako ondorioak dituela adierazten da arau-hauste prozesalaren errekurtsori dagokionez, eta, beraz, konponbide zehatzak galdatzen dituztela, besteak beste, eduki substantiboko zenbait autori kasazio-errekurtsorako sarbidea emanez. Hori guztia dela eta, argudiatzen da «ezarri nahi den arau prozesal berezia lotzen d[el]a *ad hoc* babes prozesal hori eskatzen duen berezitasun substantibo propio batekin». Orobat, euskal legegileak autoak errekurritu daitezkeela defendatzen du, adieraziz, salbuespen moduan JANen aurrean aurkeztea onartzen bada, berez arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoren bitartez bakarrik alegatu ahal izango lirakeen arrazoiak (PZLren 469. art. eta 16. XGren 1.1 atala), AGren aurrean bezala, erabat ulergarria eta zentzuduna da arrazoi horiek onartzea ebazpen judizialak har dezakeen formak (epaia edo autoa) oztopo gisa funtzionatu gabe⁸⁶.

83. Besteak beste, euskal legegileak aipatzen ditu: arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsoraz arduratzeko duen eskumena, edo atzerriko epaiak aitortu eta beteaztearen arloko errekurtsorak ebazten dituzten autoak, nazioarteko zenbait hitzarmen eta tresnaren babesean.

84. Zerrenda ireki bat, *numerus apertus*, ezartzen du hurrengo adibideak emanez: (1) BJLOren 245.1.b artikuluan eta PZLren 206.1.2 artikuluan jasotakoarekin erlazioa dutenak eta zuzenbide substantiboko arauari dagozkienak (legitimazioa edo funtsezko beste gai batzuekin lotutakoak), (2) PZLren 206.1.2 artikuluan jasotako erregistroko idatzoharrei eta inskripzioei buruzko autoak, (3) PZLren 206.1.2 artikuluko bitartekaritza-akordioei eta hitzarmenei buruzko autoak, bereziki familia-zuzenbidearen eremuan, Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legeari dagokionez, eta bai hitzarmen arautzaileei dagokienez, bai Gurasoen banantze edo haustura kasuetako familia harremanei buruzko ekainaren 30eko 7/2015 Legean aipatzen diren elkarbizitza hausten denerako itunei dagokienez eta, (4) gai baten gaineko transakzioaren onargarritasunari buruzko autoak, PZLren 206.1.2 artikulukoak.

85. Ildo horretatik, EKEZLk dio «kasaziorako diru-zenbatekoaren arabera sarbidea kenduta, Prozedura Zibilaren Legearen azken xedapenetako hamaseigarrenaren arabera, ezingo da prozedura urratzeagatiko errekurtsorak jarri kasazio-errekurtsorak jarri gabe, ez bada oinarritzko eskubideen babes judizial zibilerako eta, kasu horretan ere, Konstituzioaren 24. artikulua aintzatesten dituenak baztertuta (2. araua); eta errekurtsorak biak batera jartzen direnean, prozedura urratzeagatiko errekurtsoren onarpena kasazio-errekurtsoren alde aurreko onarpenaren baldintzapean egongo da (5. araua)»

86. Euskal legegileak, modu argigarrian dio: « Izan ere, Justizia Auzitegi Nagusiaren aurreko kasazio bidez onargarriak ez balira, ez lirakeke onargarriak izango, halaber, auzitegi horren aurrean prozedura urratzeagatiko errekurtsoren bidetik, azaldu diren arrazoiengatik. Kasu honetan, hortaz, beharrezkoa egiten da autoen kontrako errekurtsorak onartzea, azalduko arrazoiengatik, hain zuzen ere, ebazpen judizialak har dezakeen forma (epaia edo autoa) ez dadin eragozgarri izan haiek aintzakotzat hartzeko».

Argudiaketarekin amaitzeko, euskal legegileak AGren jurisprudenziara jotzen du, zeinaren arabera, kasazio-errekurtsoak onartu dira betearazpen-auto edo atzerriko epaien aitortenaren inguruan. Nahiz eta ebazpen horien moldea autoa izan eta arau-haustea arlo prozesaleko arauen gainekoa izan (epaiak aitortzeari eta betearazteari buruzko nazioarteko edo Europar Batasuneko tratatu eta erregelamenduak), horiek euskal kasazioaren bidez errekurritu ahal izateko, nazioarteko edo europar batasuneko arauen urraketa emateaz gaiz, euskal zuzenbide zibilarekin lotutako arau-haustea beharrezkoa da⁸⁷. Kasu horretan kasaziorako sarbidea onartzen dela dio «nazioarteko arau horien eraginkortasuna bermatzeko, izan ere, edukirik gabe geratuko lirake (ezin baitira arau-hauste prozesalaren ondoriozko errekurtsoaren bidez errekurritu) ebazpen judizialak hartzen duen formak (epaia edo autoa izateak) eragotziko balu kasazio-errekurtsoa jartzea».

Horregatik guztiagatik, gure aburuz, kasaziorako sarbidea autoetara zabaltzeak EAeko Justizia Auzitegi Nagusiari hautaketarako diskrezionalitate-tarterik utzi gabe —betiere, kasazio-errekurtsoaren aplikazio-eremuaren hedapena xede duela alde batera utzi gabe— konstituzionaltasun-arazoak ekar ditzakeela pentsatzen dugu, jakina denez, autoak errekurritu ahal izatea ez baita PZLn berariaz aurreikusten⁸⁸.

EKEZLren 3.4 artikulua, ordea, ez da hain eztabaidagarria. Bertan berariaz kasazio-errekurtsoa ezin jar dakiekeen ebazpenak adierazten dira. Zehazki, (1) prozesua amaitzen ez duten ebazpenak, (2) izaera intzidentala dutenak (3) kautelazko izaera dutenak, (4) objektu berari buruz geroago beste prozedura bat hastea eragozten ez dutenak, (5) izaera prozesal hutseko arauen urraketan oinarritutako ebazpenak edo, arrazoi horregatik beragatik, arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoaren bidez aurkaratu beharrekoak. Xedapen horren inguruan bi aipamen egin behar ditugu. Lehenik eta behin, eta lehenengo lau kasuei erreferentzia eginez, euskal legegilea, zalantzarik gabe, ACARCIPEk ezartzen duen ebazpen errekurriezinen zerrendan oinarritu da. Bigarrenik eta bosgarren puntuan xedatzen diren ebazpen aurkaraezinen inguruan, horien bazterketa guztiz logikoa dela pentsatzen dugu, dakigunez egungo sistemak arrazoi materialengatiko (kasazioa bera) eta prozesalengatiko errekurtsoak bereizten baititu, azken kasu horretarako arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtsoa sortuz eta aurreikusiz.

6. Euskal kasazio-errekurtsoa ez onartzeko zioak

EKEZLren 5. eta azken artikuluan euskal kasazio-errekurtsoa ez onartzeko zioak xedatzen dira. Lehenik eta behin, artikulua horren hasierari erreparatzen badiogu («Kasazio-errekurtsoa ez da onartuko, PZLn aurreikusitako kasuetan

87. Erabaki hori justifikatzeko, euskal zuzenbide zibilaren eta nazioarteko zein Europar Batasuneko arauen arteko harreman hertsia nabarmentzen da, atzerritar epai batek euskal zuzenbide zibilarekin lotutako arau bat aplikatu edo urratu dezakeela onartuz. Hori gertatuko balitz, adierazten da EAEn kokatutako jurisdikzio-organo bat behartuta egongo litzatekeela aplikazio hori berrikustera edo atzerriko epaia aitortzera bere betearazpenean. Bereziki azpimarratzen da kasuan kasuko autoak, dagokion nazioarteko zuzenbidez gain, euskal zuzenbide zibila urratzeko beharra, EKEZLren 3.1 artikulua markoan.

88. Dakigunez, BJKNk bere txostenean euskal legegileari horren inguruan ohartarazi zion.

ez ezik, honako kasu hauetan ere), badirudi berriaz adierazten dituen beste lau zioak alde aurretik PZLn aurreikusten direnei atxikitzen zaizkiela: (1) errekurtsioa bidegabera bada, ebazpen judizialaren aurka ezin delako errekurtsioari jarri edo zuzendu ezin daitekeen beste edozein forma-akats duelako, (2) errekurtsioa jartzeko idazkiak ez baditu betetzen lege honek kasuan-kasuan xedatutako eskakizunak, (3) kasazio-interesik ez badago lege honetan xedatutakoaren arabera, eta (4) aurreko artikulua 4. atalaren kasuan, Salaren ustez doktrina aldatu beharrik ez dagoenean legean aurreikusitako kasurik ez dagoelako.

Lau zio horiek ez dute ekarpen handirik egiten⁸⁹; izan ere, lehenengoak PZLren 482.2.1 artikulua kasazio arruntarentzat aurreikusitakoa errepikatzen du⁹⁰, eta bigarrenak eta hirugarrenak, modu berean, PZLren 483.2.2 eta 482.3 artikuluetan xedatutakoa. PZLren artikuluen erreproduzio hutsak dira, logikoki, EKEZLren eraentza juridikora egokituta; izan ere, kasazio arruntan errekurtsioa betekizun anitz aurki ditzakegu eta euskal kasazioan, ordea, bakarra: kasazio-interesa. Egia da EKEZLren 5. artikuluan xedatzen den azken zioa ez dela berriaz PZLn jasotzen; hala ere, kasazio arruntari aplikatzen zaiola ACARCIPen aurreikusten da. Hori guztia kontuan izanik, gure uste apalean, EKEZLren aplikazioan segurtasun juridikoa bermatzeko, ez onartzeko zioek argiak eta *numerus clausus* izan behar dutela deritzogu, eta, beraz, zentzu horretan, *lege ferenda*, egokiagoa izango litzateke kasazio arruntaren eraentza juridikoari erreferentzia orokor bat egitea «EKEZLren aplikazioan eta honek arautzen dituen berezitasunei dagokienez». Hala ere, kasazio-interesa errekurtsioa betekizun bakartzat ezartzeak (orokorra den erregimenari kontra eginez), gure aburuz, azalpen zehatz eta argiago bat galdatzen du. Hori horrela, *lege ferenda*, 5. artikulua idatzera hau proposatzen dugu: «Kasazio-errekurtsioa ez da onartuko PZLn aurreikusten diren kasuetan. Oro har, ez da onartuko, kasazio-interesik ez badago lege honetan xedatutakoaren arabera, eta, bereziki, aurreko artikulua 4. ataleko kasuan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta Salak uste badu doktrina ez dela aldatu behar legean aurreikusitako kasurik ez dagoelako».

7. Bukaerako hausnarketa

Espainiar kasazio-sistemaren puzzlean integratu den azken piezari erreparatu diogu, euskal kasazio zibilari hain zuzen ere. Bereziki, azken hori arautzeko onartu berri den EKEZLren azterketa juridiko kritikoa jarri dugu gure ahalegina, arauketa berriaren indarguneak zein ahuleziak identifikatuz. EKEZLk ezartzen duen eraentza berriaren analitik atera ditugun ondorioak aipatu baino lehen, kasazio-sistema guztiari erreferentzia egiten dion gogoeta batekin ekin nahi diogu hausnarketa-espazio honi. Ikusi dugunez, kasazio arrunta etengabeko krisian bizi den erakundea dela berretsi dugu, eta beraz, krisi-egoeran ito ez dadin, arnaguneak, hots, konponbideak eta hobekuntzak galdatzen ditu (JZPEPLPren helburuetako bat

89. Geure defentsan, BJKN, aurreproiektuaren inguruan egindako txostenean adierazten duen moduan. Geure aurka, EKEZL bera, ikus, ZARen VII. atala.

90. Zio hori BJLOren 11.3 artikulua dioenaren aplikazioa besterik ez da, zeinean adierazten den: «Konstituzioaren 24. artikulua aitortutako benetako babesaren printzipioa betez, epaitegi eta auzitegiek beti ebatzi behar dituzte formulatutako uziak; ezin ezetsiko dituzte arrazoi formalengatik, salbu eta akatsa ezin zuzenduzkoa denean edo legeetan ezarritako prozeduraren bidez zuzentzen ez denean».

dena). Ildo horretatik, eta kasazio arrunt eta autonomikoaren guda juridikoa, baina bereziki, politikoa, alde batera utzirik, espainiar kasazio-sistemaren existentzia aldarrikatu eta justifikatu nahi dugu. Dakigunez, kasazio-errekurtsua bakarra da, eta beraren bi modalitateek (arrunta eta autonomikoa) helburuak ez ezik, ondoreak (*ius constitutionis* eta *ius litigatoris*) eta araudia ere partekatzen dituzte. Haien arteko diferentzia eskumen-esparruan dago: kasazio arruntaz AG arduratzen da, estatuak emandako lege zibilei (erkideei) dagokienez; kasazio autonomikoaz, aldiz, JAN arduratzen da, autonomia-erkidegoetako zuzenbide zibil bereziko arauari dagokienez. Aitzitik, autonomia-erkidegoek, beren zuzenbide substantiboaren berezotasunetatik eratorzen diren nahitaezko berezitasun prozesalak arautu ditzakete (EKren 149.1.6 art.). Hori horrela, printzipioz, bi modalitateen arteko diferentziak ñimiñoak direla baieztatu genezake, kasazio arrunta eta autonomikoa eskubide substantibo pribatu desberdinei aplikatutako erakunde bera direla ulertuta. Hori dela eta, kasazio arrunta espainiar kasazio-sistema guztiaren ardatza dela deritzogu, beraren arabidea sistema guztiaren euskarria izanik (autonomia-erkidegoen berezko zuzenbide zibiletik eratorritako kasazio autonomikoen berezitasun prozesalak salbu, argi geratu dadila). Beraz, kasazio arruntaren zentraltasuna onartzen badugu, kasazio autonomikoaren funtsezkotasuna ezagutzea ezinbestekoa da, autonomia-erkidegoen zuzenbide zibilarekiko eta beren herritarren eskubideen defentsarekiko ezinbesteko bermea baita. Beraz, Espainian elkarrekin bizi diren bi zuzenbide zibil badiugu (erkidea eta autonomikoa), haien aplikazioan eskubide eta berme berberak eskaini behar zaizkie herritarrei. Ildo beretik, jakina, ezinbestekoa eta premiazkoa da kasazio arruntaren arabide juridikoa hobetzea bere helburuak eraginkortasunez bete ditzan.

Bigarrenik, kasazio arruntaren eraentza kasazio autonomikora egokitzean sortzen diren arazoak ikertuta eta berretsita, euskal legegilearen ekimena pozez hartzen dugu. Kasazioaren eraentza lege berezi edo espezifikoko batean jasotzeko euskal legegilearen hautua egokia iruditzen zaigu, eraentza erkidearen edo orokorraren gabeziak zuzentzeko saiakera bat dela ulertzen dugulako eta kasazioak euskal zuzenbide zibilarekin dituen helburuak betetzearen aldeko apustu sendoa dela deritzogulako.

Hirugarrenik, EKEZL ikaskuntza-prozesu baten ondoriozko azken emaitza dela baieztatu dugu, sistema erkidearen gabeziak eta beharrianak asetzeko premiatik jaioa. Zentzu horretan, euskal legegilearen ahalegin berezia hauteman dugu EAEk eta bere zuzenbide zibilak lege espezifikoko bat eskatzen zutela frogatzeko orduan. Halaber, gutxienekoak ezartzen dituen legetzat kalifikatu dugu, zeren euskal zuzenbidearen premiei aurre egiteko beharrezkoak diren elementuak bakarrik arautzen baititu. Orobat, «nahita osatu gabeko» legea dela adierazi dugu, PZLren xedapenek aplikagarriak izaten jarraitzen baitute, eta ez EKEZLren manuagatik baizik eta espainiar kasazio-sistemaren arau prozesal orokorragatik. Zentzu horretan, gogoeta-lerro hauetan nabarmendu nahi dugu euskal legegileak espainiar kasazio-sistemarekiko errespetua adierazten duela, hura osatzen duten kasazio arrunt eta autonomikotik asko ikasi baitu.

Laugarrenik eta betiere euskal legegilearen ekimena txalotuz, EKEZLn antzeman ditugun ahuleziak azaleratu ditugu: lege berria justifikatzen duten euskal zuzenbide zibilaren berezitasunen sistematizazio desegokia eta errepikakorra; euskal zuzenbide zibilaren kontzeptuaren argitasunik eza edo lausotasuna; berrikuntzarik eza, xedapen asko araubide orokorraren kopiaketa edo egokitzapen hutsak izanik...

Bosgarrenik, hausnarketa txoko honetara EKEZLren indarguneak ekarri nahi ditugu, bereziki, diru-zenbatekoaren betekizunaren desagerpena, aurkaratzeko betekizun gisa. Horren ezabapenak, era berean, euskal kasazioaren eraentza sinplifikatzen du eta kasazio-interesaren aldeko apustua egiten du, aurkaratze-betekizun bakar gisa. Hori horrela, euskal legegileak ZAn kasazio-interesa sinplifikatzeko, zehazteko eta argitzeko helburua betetzat jotzen dugu, bereziki goraiapatuz, kasazio-interesa objektibatzekeo meritua, JANen onarpen-autoaren justifikazioa asko erraztuko duena. Ildo beretik, galde dezakegu ea kasazio arruntean modu berean jokatu beharko litzatekeen. Hori da hain zuzen ere, JZPEPLPk proposatzen duena eta, gure aburuz, kasazio arruntak sufritzen duen itolarriarentzat sendagai egokia izan daiteke, alde batera utzi gabe, noski, aurretik azaldu dugun bezala, kasazio arruntaren errealtate zehatzak (AGren lan-karga, zerbitzua eman behar zaien justiziapeko kopurua...), horri buruzko hausnarketa berezia galdatzen duela.

Azkenik, eta adierazi ditugun EKEZLren indargune zein ahulezia guztiak aintzat hartuz, euskal legegilea zoriondu nahi dugu, euskal kasazioa arautu eta espainiar kasazio-sisteman modu baketsuan integratzeko egin duen apustu eta saiakeragatik. Modu horretan, aztergai izan dugun legea beste autonomia-erkidegoentzat pizgarri bezala funtziona dezakeela pentsatzen dugu, haiek ere beren kasazioa arautzeko erabakia har dezaten, kasuan kasuko zuzenbide zibil autonomikoaren berezitasunak eta premiak aintzat hartuz eta, betiere, indarrean dagoen legedia errespetatuz.

8. Erreferentzia bibliografikoak

- Almagro Nosete, José (2007). Crítica de la antigua, de la nueva y de la futura casación. *Estudios de derecho judicial*, 116.
- Alonso Furelos, José Manuel (2007). *La competencia exclusiva del Estado para legislar en materia procesal prevista en el art. 149.5.5 y 6 de la Constitución española y sus excepciones*. Instituto Vasco de Derecho Procesal.
- Arce Janáriz Alberto (1987). *Constitución y Derechos civiles forales*. Tecnos.
- Armenta Deu, Teresa (2018). Recurso de casación: Entre eficacia y nuevas orientaciones de fines tradicionales. *Indret*, 1.
- Asua Gonzalez, Clara; Gil Rodríguez, Jacinto eta Hualde Sánchez, José Javier (1994). El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Derecho Privado y Constitución*, 2.
- Banacloche Palao, Julio (2011). Análisis crítico de las reformas introducidas en materia de recursos civiles por la reciente Ley de agilización procesal. *Diario La Ley*, 7.764.
- Bassols Mundata, Nuria (2007). El recurso de casación en la ley de enjuiciamiento civil: análisis de la aplicación práctica de la nueva legislación civil. *Estudios de Derecho Judicial*, 116.
- Bercovitz Rodríguez-Cano, Rodrigo (1993). La conservación, modificación y desarrollo de los Derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. *Derecho privado y Constitución*, 1.

- Bonet Navarro, Ángel (1993). La reforma de la casación. Efectos en la función casacional de los TSJ. *Revista aragonesa de Administración pública*, 3.
- Bonet Navarro, Ángel (2000). *Los recursos en el proceso civil*. La Ley.
- Buendía Canovas, Alejandro (2012). El recurso de casación civil y su adaptación a los acuerdos adoptados por las juntas de magistrados de la Sala 1ª del Tribunal Supremo. *Revista Aranzadi Doctrinal*, 6.
- Busto Lago, José Manuel (2004). Ámbito de la competencia de los Tribunales Superiores de Justicia en materia de Derecho civil: especialidades en la regulación autonómica del recurso de casación en materia de Derecho civil propio de Galicia (A propósito de la STC 47/2004, de 25 de marzo). *Derecho privado y Constitución*, 18.
- Cabellos Espírruez, Miguel Ángel (2011). Las garantías procesales de los derechos estatutarios. Aspectos competenciales y jurisdiccionales. *Lex Social. Revista de los Derechos sociales*, 1.
- Coca Payeras, Miguel (1944). Conservación, modificación y desarrollo del Derecho civil propio, en la doctrina del Tribunal Constitucional (SSTC 88, 156 y 226 de 1993). *Revista Jurídica de Cataluña*, 2.
- Delgado Castro, Jordi (2009). La historia de la casación civil española: una experiencia que aconseja no avanzar en el modelo de unificación de la doctrina. *Revista de Derecho de la Pontificia Universidad Católica de Valparaíso*, 2.
- Delgado Echevarría, Jesús (1979). Los Derechos civiles forales en la Constitución. *Revista Jurídica de Catalunya*, 3.
- Diéz-Picazo Ponce de León, Luis (1989). Las competencias del Estado y de las Comunidades Autónomas en materia de derecho civil. In Bernardo Moreno Quesada (koor.), *Competencia en materia civil de las Comunidades Autónomas*. Tecnos.
- Fernández Urzainqui, Francisco Javier (2009). El recurso de casación civil foral en la doctrina del TSJ de Navarra. *Revista Jurídica de Navarra*, 48.
- Gimeno Sendra, José Vicente (2010). Competencias autonómicas en la regulación del proceso en defensa de los derechos estatutarios. *Revista de Derecho Político*, 79.
- Gimeno Sendra, José Vicente (2009). La casación civil y su reforma. *Diario La Ley*, 7.099.
- Hernández Puértolas, Francisco Javier (2000). El recurso de casación Foral en la Comunidad Autónoma de Aragón: estado de la cuestión. In Julián Martínez-Simancas Sánchez eta Rodrigo Bercovitz Rodríguez-Cano (koor.), *Derechos civiles de España*, bol. 6.
- Hualde López, Ibon (2017). Algunas consideraciones sobre el tribunal y el recurso de casación civil francés. *Cuadernos de derecho transnacional*, 1.
- Iriarte Ángel, Francisco de Borja (2014). La jurisprudencia del TSJ del País Vasco en Derecho civil propio. El llamado recurso de casación foral. *JADO: Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, 26.
- Laguna Domínguez, Enrique (1994). Derecho civil común de España y Derecho civil propio de las comunidades autónomas. *Revista Jurídica del Notariado*, 1.
- Lasarte Álvarez, Carlos (1980). *Autonomías y Derecho privado en la Constitución Española*. Civitas.
- López Sánchez, Javier (2002). *El interés casacional*. Civitas.
- Lorca Navarrete, Antonio María (1988). El Tribunal Superior de Justicia vasco. *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*, 4.
- Lorca Navarrete, Antonio María (2022). *La casación civil vasca*. Instituto Vasco de Derecho Procesal.
- Loredo Colunga, Marcos (2004). *La casación civil. Doctrina y jurisprudencia*. Tirant lo Blanch.
- Martí Payá, Vanesa (2010). Casación autonómica y principio de igualdad. In José Bonet Navarro (zuz.), *El recurso de casación civil*. Thomson Reuters Aranzadi.

- Montero Aroca, Juan (1989). El tribunal superior de justicia de Galicia. *Justicia: revista de Derecho procesal*, 2.
- Muñoz Jiménez, Francisco Javier (2004). El recurso de casación civil en materia de Derecho privado. *Boletín de la Academia de Jurisprudencia y Legislación de las Illes Balears*, 7.
- Nieva Fenoll, Jorge (2001). El recurso de casación ante el TSJ de Galicia, tras la LEC 1/2000 (2ª parte). *Revista xurídica galega*, 34.
- Nieva Fenoll, Jorge (2003). *El recurso de casación civil*. Ariel.
- Nogueira Romero, Santiago (1993). Reflexiones acerca de la Ley sobre el recurso de casación civil de Galicia. *Revista xurídica galega*, 4.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2018). Al albur de la Ley 5/2015, de 15 de junio de Derecho Civil Vasco: sobre la inexistencia de un derecho jurisdiccional civil vasco y la necesaria lectura de sus instituciones conforme a la Ley de Enjuiciamiento Civil. *Revista vasca de derecho procesal y arbitraje*, 1.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2020). El puzzle de la casación civil en España: la casación civil común. Análisis *lege data* y propuestas de mejora *lege ferenda*. *Justicia: revista de derecho procesal*, 1.
- Ordeñana Gezuraga, Ixusko (2020). El puzzle de la casación civil en España u ordenando las diferentes Españas. La ordenación vigente y plural de la casación civil autonómica. Análisis *lege data* y propuestas de mejora *lege ferenda*. *Revista General de Derecho Procesal*, 51.
- Ortells Ramos, Manuel (2002). Sobre la competencia legislativa de la Generalitat Valenciana en materia procesal: (cuestiones procesales del derecho privado valenciano). *Corts: Anuario de derecho parlamentario*, 13.
- Pareja Vallejo, Miguel Angel (2013). Recurso de casación y legislación procesal. La Ley 4/2012, de 5 de marzo, del recurso de casación en materia de derecho civil de Cataluña. *Revista Aranzadi Doctrinal*, 2.
- Pérez-Cruz Martín, Agustín (2007). El recurso de casación foral gallego. *Justicia: revista de derecho procesal*, 1-2.
- Picó i Junoy, Joan (2017). Lectura positiva del acuerdo de 27 de enero de 2017 del pleno no jurisdiccional de la Sala 1 del TS. *Diario La Ley*, 8.942.
- Roca i Trias, Encarna (1983). L'estructura de l'ordenament civil espanyol. *Revista Jurídica de Catalunya*, 1.
- Rodríguez Alike, María Ángeles (1990). Reflexiones sobre el recurso de casación civil. In AAAA, *Estudios de derecho procesal: en honor de Víctor Fairén Guillén*. Tirant lo Blanch.
- Sarmiento Méndez, Xosé Antón (2004). La casación civil autonómica: nuevos criterios para su pleno desarrollo. *Repertorio Aranzadi del Tribunal Constitucional*, 8.
- Vallespín Pérez, David (2012). El papel de los tribunales superiores de justicia de las comunidades autónomas. *Informe comunidades autónomas, 2012*.
- Vecina Cifuentes, Javier (2001). Los recursos extraordinarios de casación e infracción procesal en la nueva Ley de Enjuiciamiento Civil. *Jueces para la democracia*, 40.
- Villanueva García-Pomerada, Blanca (2017). El acuerdo de la Sala 1 del TS sobre los criterios de admisión de los recursos de casación e infracción procesal. *El notario del siglo XXI: revista del Colegio Notarial de Madrid*, 72.
- Zabalo Escudero, María Elena (1993). Notas a la sentencia del TC (Pleno) 88/1993, de 12 de marzo. *Revista española de Derecho internacional*, 45.